

ASTELEHENEKO Goienkaria

2007ko maiatzaren 14a > Astelehena > III. urtea > 145. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Lurrak jasan dezakeen baino kutsadura gehiago sortzen dugu"

Margarita Martin
Meteorologoa > 06



G2a

Sagardo Eguna,
Ointxe saskibaloit
taldearekin > 23

LAN HERIOTZA
Ermuar bat hil egin zen Arrasaten,
zortzi metrotik jausita > 05

BERGARA
Euskarazko liburuak irakurtzea
saritzen du programa batek > 11

LEINTZ GATZAGA
Loreak landatzeko lurra gertatu
dute gurasoek eta umeek > 14

KIROLA > ARRASATE-OÑATI ETA OTALA ZELAIKO KROSA

Ritxar Fernandez eta Yerai Varela, garaile lasterketetan

ARRASATE-OÑATI Ritxar Fernandez oñatiarra nagusitu da Laixanek antolatutako herri lasterketa herrikoian

OTALA ZELAI Yerai Varela oñatiar gaztea izan da lehenengoa Urkulun jokaturako Ojala Zelaiko krosean

BIGARRENAK Ekaitz Osa izan da bigarrena Oñatiko lasterketan, eta Zuhaitz Ezpeleta, Urkulukoan > 15

ARAMAIO > AHT

AHTren inguruko galdeketa

Trenaren alde edo aurka bozkatzeko paperak banatuko dituzte egunotan > 14

ARRASATE > DIRULAGUNTZA

Elkarteei laguntzeko dirua

Arrasateko Udalak 766.678,88 euro ipiniko ditu herriko elkarte eta bestelakoen ekimen eta proiektuak diruz laguntzeko.

Hogeita bi esparrutarako deialdia egitea onartu du Udalak, lau sailetan banatuta: euskara eta kultura, gizarte sustapena, garapen estrategikoa eta kirolak. > 10

BERGARA > ARGAZKIGINTZA

Argazkien zaleen topaketak

Euskadiko 50 argazkizale batu ziren Bergaran > 24

Eskoriatzako neskek galdu egin zuten lauko finaleko finalerdia

Eskoriatzako neskek ezin izan dute 2. maila nazionala jokatzeko txartela lortu. Zapatuan, Intxaurtxueta kiroldegian jokaturako finalerdian 50-53 galdu zuten Añorgaren aurka eskoriatzarrek. Hala, finalerdiak kanpo geratu ziren, eta, bide batez, igoera lortzeko aukerarik gabe.

Finalera, Añorga eta Cafes Aitona iritsi ziren; eta, atzo jokatu zen finalean, Cafes Aitona nagusitu zen. > 20



BABESA Irudian, Eskoriatzako jokalariek, nahigabetuta, zaleei babesarengatik eskerrak ematen. JOSETXO ARANTZABAL

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Elkarrizketa > 06
Iritzia > 08
Herriak > 09-14
Kirola > 15-22
Kultura > 23-27
Saikatuak > 28
Irrati-Telebista eta Hitzorduak > 29
Berri-zakua > 30-31
Azkena > 32

ENPRESA > EKINTZAILE BERRIAK

Enpresak sortzen laguntzeko ekintza

Europako Batasunak sortutako programa baten bidez, enpresa bat sortu nahi dutenek auzolandegiak egin ahal izango dituzte

Enpresa bat sortu nahi duten ikasketadun gazteei eta langabeiei zuzendutako auzolandegiak antolatu ditu Arrasateko Saiolan zentroak. Bergarako Elosu auzoan izango dira. Goizean, auzolana egingo dute, eta arratsaldean, ikasi. > 04

Barruan,
Dorletako Ama
txirrindulari
talderen
posterra



ARETXABALETA > EUSKARA

Berbetanek adinduei eskerrak

Udalak Berbetan programan parte hartu duten adinduei eskerrak eman zizkien eguean, ospakizun baten. Herriko berbetaren eta usadioen testigantza eman zuten adindue horiek, etorkizunean gorde ahal izateko. > 13

ELIZA > LEHEN JAUNARTZEAK

Batzuen elizkizun berezia, askoren ospakizun soziala

KATEKESIA Hiru urteko prestakuntzaren ostean egiten da jaunartzea; umeendako etapa baten amaiera dena katekistek kristau ibilbidearen hasieratzat daukate

XUMEA Ibarrean, leku gutxitan, ohiko baino elizkizun xumeagoa egiten dute, Jaunartzeari berezko zentzua emanez; Oñatin, aurten egin dute lehenengoz

OPARIAK Ume askok ez daki Jaunartzearen benetako zentzua zein den; ekitaldi sozial bihurtu den neurrian, opariek hartu dute garrantzia

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Loreen hilabetea da maiatza eta, gurean, Lehen Jaunartzeena ere bada. Ibarreko elizetan, Lehen Jaunartze gehienak maiatzean egiten dituzte, eta aste bukaeran ere izan dira batzuk.

Aspaldion entzun izan dugu Lehen Jaunartzeak ezkontzen parera iritsi direla: ileapaindegia, soineko dotorea ume zein senideek, argazkiak, sekulako otorduak, opariak... Elizkizun xume izatetik, dotoreziaz apaindutako ospakizun sozial izatera pasa ote diren da jende askoren galdera. Aldatu ez dena da, ordea, haurrek egun horretan Jainkoaren esku uzten duten ilusioa.

Iritzien bila, guraso eta katekistengana jo dugu.

UMEAK FEDEAN HEZI

Arrasateko San Frantziskoko elizan katekista lanetan jarduten du Espe Lizarralde, eta bere ikasleek joan zen astean egin zuten Lehen Jaunartzea. Katekista honen esanetan, "Jaunartzearen erlijio kutsua gero eta txikiagoa da. Gehienendako, familia ospakizun bihurtu da Lehen Jaunartzea", esan digu. Hala ere, garbi utzi nahi izan digu "ospakizunari ematen zaion kutsua familia bakoitzaren baitakoa" dela.

Erljioari ematen zaion garrantziaren adierazle da, behin Lehen Jaunartzea egin ostean, hurrengo ikasturteetan ez dutela jarraitzen katekesira joaten. "Umeek etapa baten amaieratzat hartzen dute Jaunartzea; gure-

Lehen Jaunartzeak, pixkanaka, erlijio kutsua galdu eta familia giroko ospakizun sozial izatera pasa dira

tzat, berriz, kristau ibilbidearen hasiera da. Kristau ikasbidean jarraitu ez arren, ordea, nabarmen ikusten da etxetik zeinek jasotzen duen fedearen kontua eta zein datorren ospakizunarengatik", diosku Espek.

Lehen Jaunartzerako, hiru ikasturtetan barrena prestatzen dituzte: "Lehenengo, Jesusen bizitzaren berri ematen diegu. Gero pixkanaka sartzen ditugu Eukaristiaren, Penitentziaren... gaian. Erakusten diegu egun horretan zer egin behar duten, Jesus euren barrura doala eta euren lagun dela azaltzen diegu. Fedean heztea da kontua", Esperen ustez.

Baina fedea bestelako parafernaliaz jantzi eta ia estaltzeraino ailegatzen dira, zenbaitetan.

OÑATIN, BESTE AUKERA BAT

Lehen Jaunartzearen inguruan sortzen diren gehiegikeriak albo batera utzita, Oñatiko zenbait gurasok baimena eskatu zuten euren seme-alabek Lehen Jaunartzea beste modu baten egiteko: "Nahi genuen gauza xumeagoa egitea, Lehen Jaunartzeari berez izan beharko lukeen esanahia emanez eta ponpoxokeriak albo batera utzita. Dena den, argi utzi nahi genuen bakoitzak nahi duen moduan egiteko askatasun osoa duela, eta ez genuen eskatu beste kentzerik, baizik eta guri beste aukera bat ematea", diosku Oñatiko guraso batek.

Joan zen asteko zapatuan, maiatzaren 5ean, egin zuten Lehen Jaunartzea 15 neska-muti-




IKER

%25eko DESKONTUA sukalde altzarietan Apirilaren 15etik ekainaren 15era.

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

BAINUAK: ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

FAGOR 



AUKERAK Oñatin, maiatzaren 5ean, zapata, egin zuten Lehen Jaunartzea kaleko jantzi eta modu xumean 15 neska-mutilek; Bergarako Santa Marina elizan, domekan izan dira Jaunartzeak.

GOIENKARIA

kok. "Elizkizuna betikoen antzerakoa izan zen, hilean behin egiten den umei zuzendutako meza-zen erakoa. Umeak kaleko jantzi joan ziren mezatara eta, aldea oso goian dagoenez, beherago aldare txiki bat ipini genuen, umeen mailan. Ohiko kantuez gain, abesti berriak ere kantatu zituzten, eta horiek izan ziren ezberdintasun nagusiak". Izan ere, Lehen Jaunartzerako prestakuntza gainontzeko umeekin batera egin zuten.

Ospakizuna bera ere xumeago egin zuten: "Elizkizunaren ostean, merienda eta herri jokoa egin genituen Jaunartzea egin zuten neska-mutikoak, euren anaia-arrebek eta lehengusuren batek eta gurasook", azaldu digu.

Oraingo domekan egin du Lehen Jaunartzea Bergaran, Santa Marinan, Leo Juaristiren alaba Leirek. Bat dator esatean Lehen Jaunartzea ekitaldi sozial bihurtu dela: "Opari kontua, bazkaria, umearen eta inguruko arropa... elizako kontua bigarren mailan geratu dela dirudi. Jaunartzea beste kontsumismo ekintza bat da. Nik ez diot zentzu hori ematen, baina, oro har, horrela gertatuta dago, eta gure umea besteengandik ezberdina izan ez dadin, gu ere joko berean erori gara: kanpora goaz bazkaltzera, etxeko denok erosi dugu arropa berria...", diosku Leok.

Leo Juaristik esan digu berak ere hartuko lukeela Oñatikoen bidea: "Behin baino gehiagotan

esan dut gertu egongo nintzakeela edozein astegunetan, umeak eskolatik irtendakoa eta kaleko ohiko arroparekin, Jaunartzea egiteko. Baina gureak bakarrik horrela egitea ez da zuzenena ere".

GEHIEGIZKO OPARIAK

Jaunartzea hain berezi egiten duen beste kontu bat opariena izaten da. Espe Lizarralderen ustez, opariena da txarrena: "Umeek opari pila bat jasotzen dituzte, eta ez dute beste gauzarik buruan. Nik argi uzten diet hirugarren

Jaunartzearen kostua 3.200 eurotik gorakoa izan daiteke

Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Espainiako Konfederazioaren arabera, familia bakoitzak 3.200 euro gastatzen ditu Jaunartzean.

Arropa eta otordua dira garestienak. Mutilendako marinel arropak 220 euro balio du, batez beste, eta horri zapatak gehitu behar zaizkio. Neskendako soineko eta osagarrien prezioa 600 eurora igotzen da. Ileapaindegian eta bitxietan, 80 euro gastatzen dituzte neskek; 60, mutilek.

Banketea 50 lagunekoa bada, 2.500 euroko kostua izan dezake. Noski, gonbidatuek argazkiak eta oroigarriak jasoko dituzte, eta 525 euro dira, batez beste.

ikasturtea hastean, katekesiko eskolatan, ezin dutela Lehen Jaunartzeko arropaz, opariez... berba egin. Debebatuta dute, eta esana betetzen dute". Garai batetik hona, opariak gero eta handiagoak direla esan digu, gainera: "Lehen, erloju bat izaten zen ohiko oparia eta, orain, oparietarikoa bat da. Horretaz gain, bideo-kontsolak, *game boy*-ak, bizikletak... jasotzen dituzte umeek".

Oñatin, opariekin, bakoitzak erabaki du zer egin. Guraso batek esan digu umeak galdetu ziola ea ez zuen bere lagunak bezala oparirik jasoko. "Baietz esan nion, egun garrantzitsua zela eta oparia egingo geniola, baina urtebetetze egunean modura".

Kaleko jantzi zein printzesen soinekoz, goi mailako oturuntzekin zein meriendarekin, opari handi zein txiki, Espe Lizarraldekin hau esan digu: "Ez dakit jabetzen diren Jaunartzea zer den; zaila da euren larruan sartzen. Eguna bera zoramena, urduritasuna da, baina ez dakit zenbateraino diren kontziente Jaunartzearen zentzuaz".

"Umeak pozik daude, opariaren zain, batez ere. Ni saiatzen naiz Jaunartzeari duen balorea eta zentzua ematen, baina ez dakit zenbateraino ulertzen duten umeek", dio Leo Juaristik ere.

Ospakizun erlijioso zein sozial, umeendako egun gogoangarria da Lehen Jaunartzekoa eta, iritzi zein pentsamolde guztien gainetik, ilusioa izango da nagusi.

ZER DA LEHEN JAUNARTZEA ZURETZAT?



Eider Moncayola
Bergara



Aitor Zabaleta
Bergara

Lehen Jaunartzeko eguna oso berezia eta polita da niretzat. Aurrez prestatu gara honetarako, eta elizan Jauna hartu dugu lehen aldiz. Gainera, opari asko jasotzen ditugulako dut benetan gustuko egun berezi hau.

Egun berezia da niretzat, eta oso ondo ospatu dut. Katekesian, errezatzen ikasi dugu eta, gaur ere, elizan, otoitz egin dugu, eta baita lehen aldiz Jauna hartu ere. Gainera, opariak jaso ditudalako ere, pozik nago.

eteo
ETEO, KOOP. E.

GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA ZIKLOAK

ESKAINITAKO TITULUAK

IDAZKARITZA

ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK

MERKATARITZA KUDEAKETA ETA MARKETINGA

ATE IREKIAK MAIATZAREN 16an 18:00etan

Zatoz gu ezagutzera!

AURREINSKRIPZIO EPEA: EKAINAREN 1etik 7ra



Larraña auzoa, 16 • 20560 OÑATI (Gipuzkoa)
Telefona: 943 71 80 09 • Fax: 943 71 81 62

informacion@eteo.mondragon.edu • www.eteo.mondragon.edu

UGARTE

ARROZTEGIA-ALTZARIAK



Arotz lanak orokorrean
Horma armairuak
Altzariak • Leihoak • Ateak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

IRIARTE

Umeen
denda
Helduen
lentzeria



Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

ENPRESA > EKINTZAILEEI LAGUNTZEKO PROGRAMA

Enpresa berriak sortzeko auzolandegiak

Enpresa sortu nahi duten ikasketadun gazteek eta langabeek auzolandegian parte har dezakete

Arrasateko Saiolan enpresa eta berrikuntzarako zentroak antolatutako ekintza da

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Debagoiengan enpresa berriak sortzeko laguntza emateko asmoz, auzolandegi berezi bat antolatu du Saiolan enpresa eta berrikuntzarako zentroak. Inoiz euren enpresa sortzeko ametsa izan duten lagunei dago zuzenduta; parte hartzeko baldintza da ikasketak bukatutako gaztea edo langabea izatea.

Auzolandegia Bergarako Elosu auzoan egingo dute, uztaillaren 16tik 29ra bitartean. Naturaz inguratuta, taldekideak elkarrekin bizi izango dira 15 egunez, eta, bitartean, auzolandegian lan egingo dute eta enpresa sortzeko formazioa jasoko dute.

LANA ETA HEZKUNTZA

Honela dago antolatuta egondia: goizean, Elosuko eliza ondoko etxe zaharkitua hobetu edo berrituko dute.

Arratsaldean, hiru motako hezkuntza jasoko dute parte-har-

tzaileek: ekintzailera, espiritu kooperatiboa eta enpresen bidegarritasun planak ikasiko dituzte. "Benetako kasuak, praktikak, talde lana... landuko dituzte, eta saio arinak izango dira. Saiolango tutoreek emango dituzte, eta baita hemengo kooperatibetako ordezkariak, enpresa berrietako ekintzailerek", azaltzen du Larreak.

Hala, helburua da elkarrekin enpresa bat sortzeko animatuko diren lagun taldeak sortzea.

Izenematea zabalik dago 943 71 20 72 telefonoan edo alarrea@eps.mondragon.edu e-posta helbidera mezua bidalita.

EUROPAK LAGUNDUTA

Auzolandegi horiek zailtasunak dituzten taldeei -langabeak, etorkinak, emakumeak...- enpresak sortzen laguntzeko Europako Equal Ariadna proiektuan daude, eta Europako Gizarte Funtsak finantzatzen ditu.



JOSETXO ARANTZABAL

Ondarea zaintzen eta berreskuratzen lagunduko dute

Elosuko eliza ondoko etxean, hainbat motatako lanak egin beharko dituzte auzolandegiko parte-hartzaileek; Argiñe Larrea antolatzaileak dioenez, batik bat, etxearen aurrealdea berritzea eta lorategi inguruko horma jasotzea, neguan jausi egiten da-eta. Bestelako zereginak ere izango dituzte: adibidez, egurra moztea eta behar bezala gordetzea, eta etxeko jesarleku batzuk berritzea eta balio ez dutenak botatzea.

Salneurri gomendatua, Penintsulan eta Balear Uharteetan, Fiesta Coupe Ambiente 1,3 ZP eta Focus Coupe Trend 1,6 100 ZP autoentzat; maiatzaren 31ra arte baliagarria. Prever plana, BEZa, garraioa, sustapeneko deskontua eta kontsesionarioaren ekarpena barne. Bluetooth Music opari, Ford Credit-ekin finantzatzen bada. Eskaintza hau ez da baliagarria langile eta flotentzat. Ikusten diren modeloak: Fiesta S eta Focus S. Kontsumoa: 4,4-9,3 l/km. CO2 emisioak: 116-224 g/km.

HILABETE HONETAN FORD BLUETOOTH MUSIC

9.200 €-TIK AURRERA



AIRE GIROTUA

13.200 €-TIK AURRERA

AIRE GIROTUA, ABIADURA
KONTROLA ETA NARRUZKO BOLANTEA

Egun Urdinak

MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE

Feel the difference



HEZKUNTZA > LEHIAKETA MONDRAGON UNIBERTSITATEAN

Arrautza jaurtiketa lehiaketa Politeknikoan


Zortzigarren aldiz jokatu dute Mondragon Unibertsitatean tradizio bihurtu den sariketa

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

VIII. Arrautza Jaurtiketa Diseinu Industrial lehiaketa egin eta sariak banatu zituen Mondragon Unibertsitateak joan den egunean. Buart taldeak –Miren Buruaga, Unai Saiz, Leire Lozano, Ainhoa Fernandez de Arroiabe eta Jon Anakabe ikasleek– distantzia eta diseinuaren saria irabazi zuten; estetika saritzen zuena, Los Huevones taldeak –Intza Arrie-

ta, Irati Gonzalez, Aizea Lekuna eta Juan Ignacio Calvo–, eta hegaldi dotorearena, Patxo taldeak –Roberto Sanchez, Jose Manuel Maneiro, Endika Bilbao, Aritz Legarretaetxebarria eta Ivan Zurita. 90 lehiakide izan ziren, 23 taldetan.

Jaurtiketean, arrautza ondoren babesten duen tramankulua saritzen da. Ingeniaritza irakasle batzuek asmatu zuten lehiaketa, eta tradizio bihurtu da.



IRABAZLEAK Lehen saridunak, Buart taldekoak.

VK COMUNICACIÓN



JOSETXO ARANTZABAL

Jon Agirreren eskubideen aldeko ekintzak

Jon Agirre aramaioarrak 26 urte bete berri ditu kartzelan. Zigorren hiru laurdenak beteta dituen arren, zigorra 2011. urtera arte luzatu diote. Horregatik protestatzeko, kontzentrazioa eta agerraldia egin zuen Amnistiaren Aldeko Mugimendiak egubakoitzean Aramaion; ertzainek identifikatzeko eskatu zieten bi antolatzailei. Zapatu goizean, horrez gain, Arrasatetik Langraitzera auto-karabana egin zuten.

LANA

Lan-istripuz hil zen gizon bat Arrasaten

Etxebizitza bat barrutik konpontzen ari zela, erori egin zen behargina

A.G. > ARRASATE

Lan-istripu bat gertatu zen joan den egubakoitzean Arrasaten, eta Ermuko 56 urteko gizonetako bat hil egin zen horren ondorioz.

Olarte kalean gertatu zen istripua. Kale horretako 11. zenbakiko etxebizitza barrutik konpontzen ari zirela gertatu zen, 11:00ak aldera.

Hildakoa Jose G.F. zen. Langile autonomoa zen. Zortzi bat metroko altueratik jausita hil zen behargina.

Osalan Euskadiko Lan Osasun eta Segurtasuneko erakundeak esan duenez, etxe horretako berritze lanek ez zituzten segurtasun baldintza guztiak betetzen.

Aurten, Euskal Autonomia Erkidegoko 18. lan-heriotza da hori; eraikuntza alorrean, zortzigarrena da.

ALDEDI

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84

Naturaldia natura jardunaldien baitan, eguenean, hitzaldia izan zen Arrasaten, Kulturaten. Klima aldaketaz eta horrek Bizkaiko itsasoari dakarkion eraginaz jardun zuten Margarita Martin meteorologoak eta Adolfo Uriarte ozeanografiako doktoareak. Klima aldaketa azken aldian hainbeste aldiz entzun dugun gaia izanik, horretaz jardun dugu hizlarietako batekin.

Margarita Martin > Meteorologoa

"Planetak jasan dezakeena baino kutsadura gehiago sortzen dugu"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE

Igeldoko Meteorologia Institutuko zuzendaria da Margarita Martin. Espainiako klimatologia behatoki onena eta Europako onenetarikoa da. Orain dela 80 urtetik honako datuak dauzkate jasota, eta, besteak beste, aurreikuspenak egiten dituzte.

Noiztik diharduzu meteorologiaren esparruan lanean?

Kasualitatez hasi nintzen. Fisika ikasten ari nintzela derrigortu ninduten airearen fisika ikastera. Orduan ohartu nintzen zein zen nire benetako bokazioa. Ondoren, oposaketak egin eta, orain dela 23 urte hasi nintzen Igeldon.

Zergatik dugu eguraldiarekiko hainbesteko interesa?

Konturatzen ari garelako planetaren baliabideekin nolako gehiegikeriak egin ditugun eta horren ondorio klimatologikoa orain etorriko zaizkigula. Hala ere, gure arbasoak gehiago arduratzen ziren eguraldiarekin, baina ingurumena ere gehiago errespetatzen zuten.

Gauza asko ari gara entzuten aldaketa klimatikoari buruz. Zer da aldaketa klimatikoa?

Gaur egun, aldaketa klimatikoari buruz hitz egiten dugunean, aldaketa antropogenikoa dihardugu, hau da, gizakiaren ekintzak eragindakoak.

Aldaketa klimatikoa zergatik gertatzen da?

Azaldu dut zein den lurraren klimaren portaera ziklikoa, eta zein den gizakiaren eragina. Hau da, gizateriaren zati batek izan duen garapen ekonomikoa eta horrek ekarritako negutegi efektudun gasen kontzentrazioak eragin du beroketa globala.

Zein dira aldaketa klimatikoaren ondorio nabarmenak?

Dagoeneko bizi ditugu ondorio horiek. Afrikako lehortearen ondorioz, esaterako, orain dela 15 urte ez geneuzkan biztanleak etorri dira gurera. Lan bila etorri dira, baina ekonomia kapitalistan murgildutako gure gizarteak ez da gai izan lana emateko.

Oraindik bada aldaketa klimatikorik ez dagoela dioenik.

Aldaketa klimatikoa beti egon da, baina esaten dute ez duela jatorri antropogenikorik. Aldaketa erabat naturala dela diote eta, beharbada, neurri batean, izan dezake jatorri naturala. Beroketa



Klima aldaketa izan zuen berbetarako gai Margarita Martinek Kulturaten.

I.A.

ETORKINAK

"Afrikako lehortearen ondorioz, orain 15 urte ez zeuden biztanleak daude gurean"

EZBERDINTASUNAK

"Aldaketak motelagoak izanik, lehen errazago egokitzen ziren gizarteak eta ekonomia"

POLITIKA

"Hauteskundeetan, kutsaduraren gaiak duen baino tarte zabalagoa merezi du"

Zein ezberdintasun dago lehenago klima aldaketekin?

Berezitasuna da benetako eztabaida, negutegi efektudun gasen gainekoa. Lurraren kutsadura oso larria eragiten ari gara. Baina klima aldaketaz eta beroketa globalaz baino ez da hitz egiten. Helburua da erregai fosilak beste energia batzuekin ordezkatzeko. Beroketa globala dago, gizakiak eragina du horretan, baina irtenbiderik ez digute aurreratu. Baita irtenbideak planeta gobernatzen duen potentziaren interes ekonomikoen arabera izatea. Gainera, lehen aldaketak motelagoak izanik, gizarteak eta ekonomia egokitzeko nahikoa denbora zegoen.

Hondamendi klimatikoak aurreikus daitezke?

Joan den astean izandakoak bezalako uholdeak Bizkaiko golkoan *Niño* fenomenoaren atal bat amaitu eta *Niña*-rena hastean ger-

tatu ohi dira, eta naturalak dira. Beraz, arriskua aurreikus daiteke, baina leku zehatza, ez.

Kyotoko protokoloak zertan eragingo du klima aldaketan?

Kyotoko protokoloak diru arazoa du. Garapen bidean dauden lurraldeak Europaren mailan jartzeko, energia aurrezteko eta eraginkor bihurtzeko neurriak jarri behar dira. Badira ingurumenari kalte gutxiago egiten dioten sistemak: ziklo konbinatuko zentralak, esaterako. Baina, dirurik ezean, alperrik da protokoloa.

Aldaketa klimatikoak badu ikuspuntu positiborik?

Kyotoko protokoloa sinatu duten herrien arteko elkarlana. Baina nagusien falta dira sinatzeko. Protokolo horren atzean ere egon daiteke interesik: elektrika enpresek energia nuklearra ekoiztu nahi izatea, Europan uranioa dagoelako.

Herritar arruntak ohartzen gara arazoaren larritasunaz?

Gutxi batzuk baino ez. Datoren hauteskundeetan, kutsaduraren gaia programetako puntu nagusia izan beharko litzateke, baina ez diote behar duen garrantzirik ematen ingurumenari.

Zer egin genezake herritarrok?

Elektrika enpresei energia berriztagarriak eskatu beharko genizkieke, eta prezio berean, gainera. Presioa egin behar dugu, gobernuek hartzen dituzten erabakiak lurraren kutsadura gutxitzeko izan daitezkeen. Hortaz, energia aurrezteko beharrezkoa da eta, horretarako, sistemak eta mekanismoak eratu behar dira. Bestalde, telebista eta ordenagailua hainbeste denboran piztuta izatea ez da komeni; kontsumo baxuko bonbillak erabili behar ditugu, eguzki plakak instalatu...

Zelan jokatzeko dute administrazioak eta enpresek?

Administrazioak benetako arazoa ezkutatu du: kutsadura. Hori estaltzeko, beroketa globala erabiltzen dute, eta hori arazoaren zati bat baino ez da. Administrazioak energia berriztagarriak erabiltzen dituzten enpresak sarritu behar litzuzke.

Etorkizunean, zertan geratuko da gure planeta?

Klima aldaketak hainbat gaitasun hedatzea erraz dezake, eta ezingo diegu aurre egiten.

oharrak eta deialdiak

DEBAGOIENA

> Hiltegia Bizirik taldeak batzarra deitu du

Gaur, astelehena, egingo dute batzarra, Eskoriatzako Ibarraundi museoan, 21:00etan. Urte eta erdi pasatu da azkeneko batzar irekia egin zutenetik. Hori horrela, ordutik honako ibilbidearen errebasoa egingo dute; baita gaur egungo egoeraren gainean berba egin ere. Interesa duten guztiak joan daitezke.

BERGARA

> Posta bidez bozkatzeko bulegoa jarri du EAJK

Batzokian jarri dute bulegoa. Gogoratu maiatzaren 17a dela posta bidez bozkatzeko azken eguna. Informazio gehiago, 943 76 47 00 zenbakian.

BERGARA

> Pazkoetako herri bazkarirako txartelak salgai

Kortazar eta Pol-Pol tabernetan daude salgai, 10 eurotan. Txartelak erosteko azken eguna hilaren 22a da; bazkaria 28an da.

BERGARA

> 1965ean jaiotakoentzako aurtengo kinto afaria

Maiatzaren 19an izango da, 22:00etan, Txarrantxa jatetxean. Aurretik Pol-Polen batuko dira, 19:00etan. Izenematea, Ariznoa eta Pol-Pol tabernetan. Argibideak: 629 56 29 25 (Karlos) edo kexaniz@eskalnet.net.

DEBAGOIENA

> Hiru tenpluen ibilbidea, hilaren 26an

Mundumira jaialdiaren barruan antolatuta dute irteera. GR-120 bidea jarraituz, Loiolako Santutegia, Antigua baseliza eta Arantzazuko Santutegia bisitatu dituzte. 9-10 orduko iraupena du. Izena emateko, deitu 902 18 14 71 zenbakira.

BERGARA

> Xamatx dantza taldearen ibilbidearen bazkaria

Ekainaren 9an egingo dute, 14:30ean, Agorrosinen. Aurretik, 12:00etan elkartuko dira, Ariznoa tabernan. Izena emateko, sartu 5 euro Euskadiko Kutxan.

ANTZUOLA

> Baratzeko lore eta landareak zaintzeko ikastaroa

Baratzeko lore eta landareak nola zaindu behar diren jakiteko ikastaroa da. Hilaren 17an izango da,

19:00etan, Olanan etxean. Lapatza baserriko Tomas Larrañagak emango ditu eskolak.

ELGETA

> Zabaliak dago ibilgailuen zerga ordaintzeko epea

Ekainaren 10era arte dago zabaliak ibilgailuen zerga ordaintzeko epea. Udalak jakinarazi du helbideratutako ordainagiriak maiatzaren 8an zordundu zirela baimendutako kontuetan. Helbideratuta ez daudenak posta arruntaz bidaliko dira zergadunen helbide fiskalera.

ARETXABALETA

> Posta bidez bozkatu nahi dutenendako zerbitzua jarri du EAJK

Posta bidez bozkatzeko orduan zalantzaren bat izan edo laguntza behar dutenendako zerbitzua jarri du EAJK batzokian. Interesa duten guztiak astelehen eta eguaztenetan

18:00etatik 19:30era hurrera daitezke.

BERGARA

> Ezker abertzaleak bulegoa jarri du posta bidez bozkatzeko

Posta bidez bozkatu nahi duten guztiendako jarri dute bulegoa. Artatse elkartean dago, 11:00-14:00 eta 18:00-20:00 -zapatuetan, goizez bakarrik. Maiatzaren 17a da posta bidez bozkatzeko azken eguna.

BERGARA

> Sukaldaritza ikastaroa antolatu du BEKEK

Emakumeen elkar-teak antolatu du. Artatse elkartean izango da, hilaren 16-17an eta 21-22an, 18:00etatik 20:00etara. Gorka Lobato Lasa jatetxeko sukaldariak emango ditu eskolak. Prezioa 20 euro da. Izena emateko, deitu 625 70 78 92 telefono zenbakira.

BERGARA

> Irteera Pol-Pol Mendizale taldearekin

Lizarraga-Trinidad-Argiñano ibilaldia egingo dute hilaren 20an. Eguna oso irteera izango da, eta 08:00etan abiatuko dira Fraiskozuritik. Gorla Alpino taldeak eta Pol-Pol taldeak antolatu dute.

DEBAGOIENA

> Baserri inguruneko plastikoa batzeko eguna

Hilaren 22an batuko dute. Ohiko lekuetan utzi beharko da.

etxeko leihotik



Leire Kortabarria

ASTELEHENEKO GOIENKARIAko erredaktore burua

Lehen Jaunartzeak ere, hautu kontua

Lehen Jaunartzeak eta hauteskundeak batera etorri zaizkigu Debagoienara ere, eta hasieran pentsa genezakeen baina zerikusi handiagoa dute biek bata bestearekin. Hori argi geratu da gurean aurtun; izan ere, guraso batzuek seme-alabek Lehen Jaunartze ezohikoa egitea erabaki dute, eta sekulako gastu handirik gabe, ospakizun xaloea egin dute: kaleko arropaz jantzita, elizkizuna, Jaunartzea bera; eta merienda, denok batera. Gero, norberak ikusiko zuen opariekin zer egin, eta zelako opariak egin. Argi dago ez dela hori gehiengoaren aukera; horregatik izan dira eurak albiste bidez, bitxia da zelan sasoi baten araua zena, hau da, ospakizun apala, gaur egun ezohiko bihurtu den.

Eten barik, aukerak, hautuak, egiten ari gara bizi osoan; eta horietako bakoitzak ondorio asko izan ditzake. Inork gehiengoaren ez beste aukera baten alde egiten duenean, gertu egon beharko du iritziak eta, batzuetan, epai moralak ere entzuteko, nahi eta nahi ez; hori baitugu gustuko pertsonok. Hala ere, horrek ezin du aukera askatasuna mugatu. Bizitza etengabeko hauteskondea da, eta, hori ere gardena izan dadin, askatasuna da ezinbesteko aurre-baldintza.

> **Nerabeek nahi izan gabe haurdun geratzen jarraitzen dute, gure garapen mailari legokion baina gehiago. Zail egiten zait informazio faltagatik dela sinistea. Arazoa sakonagoa delakoan nago.**

> **Kontuz gidatzeko kanpainak ere, gero eta beldurgarriagoak dira, baina beldurgarriagoa, sekula ikasten ez dugula ikustea. Gureko errepideetan batzuen jokaera ikusita ulertzen dira hobeto zergati batzuk.**

"Gehiengoarena ez den aukera egiten dugunean, iritziak entzungo ditugu"

debagoiendarrak kanpoan

Amaia Aperribai > Bergara

"Kostako jendea barnealdekoa baino irekiagoa dela esango nuke"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Amaia Aperribai bergararra Mutrikun bizi da azken zazpi urteetan. Gutxitasunen bat dutenekin egiten du lan; orain, baina, eszedentzia hartu du, bikiak izan baititu. Mutrikun gustura bizi arren, Bergarara bi aldiz pentsatu gabe etorriko litzatekeela aitortu digu Aperribaik.

Mutrikura bizi izatera joatea erabaki zenuenean, zerk bulzatuta hartu zenuen erabakia?

Mutila mutrikuarra dut, beraz, edo batak edo besteak herriz aldatu behar zuela pentsatu genuen. Mutilak lana Mutrikun dauka; familiako taberna dute, beraz, egokiena ni hara joatea zela pentsatu genuen.

Hori orain dela zazpi urte hartutako erabakia da. Nik, garai har-

tan, Arrasateko Santa Ageda ospitalean egiten nuen lan. Gero, Eusko Jaurlaritzako ordezkari izan nintzen, gutxitu bereziekin lanean. Hainbat eskolatan egin izan dut lan. Orain, 16 hilabetetako lan baimena hartu dut, amatasuna dela-eta.

Begarara etortzeko ohitura-rik baduzu?

Bai, joaten gara Bergarara. Egia da, orain, ume txikiak ditugunik, gutxiago etortzen gara, baina, hala ere, urtean 5-6 aldiz bisitatzen ditugu bai etxe-koak baita lagunak ere. Hala ere, gurako nukerekin baino gutxiagotan izaten dut aukera Bergarara joateko. Gainera, orain, gurasoak dira bisitan etortzen direnak.

Mendekoste jaiak ere laster dira, baina, aurtun, uste dut ez



GOIENKARIA

Eszedentzia hartu du

Eusko Jaurlaritzako ordezkari izan nintzen egiten du lana baina, orain, 16 hilabeteko eszedentzia du.

dugula bisitarik egingo. Orain nahikoa lan dugu etxean, bi txikiak zaintzen.

Barnealdetik kostara joan zara bizi izatera. Nabari da jendearen izaera desberdina?

Bai; alde nabaritzen da. Kostako jendea irekiagoa dela esango nuke. Bergaran, koadrilak pisu handiagoa du; beste lagun asko izan arren, koadrilan egoteko ohitura handiagoa dugu.

Mutrikura, berriz, herri txikiagoa da. Gainera, mutilak tabernan lan egiten duenez, taberna giroan mugitu naiz, eta ez dut inolako arazorik izan harremanak egiteko.

Hori bai, Mutrikuko bizimodura samur egin naizen arren, oso gustura joango nintzateke berriro ere Bergarara.

Itsasoa gertutik ezagutu duzu. Orain, joango zinateke itsasorik ez duen herri batera bizi izatera?

Bai; kontutan hartu ni 25 urterekin etorri nintzela Mutrikura. Hala ere, itsasora joateko ohitura badaukat eta, udan, Mutrikun, izugarri ondo egoten da. Etxetik jaitsi eta hondartza bertan izatea ederra da!

Mutrikun, zer da faltan nabaritzen duzuna?

Alde batetik, familia eta lagunak asko igartzen ditut faltan. Bestetik, Bergarak dituen zerbitzuak ere faltan nabaritzen ditut. Mutriku herri txikia da eta, zerbitzu batzuk jaso ahal izateko, herritik irten beharra daukagu; Eibar edo Donostia aldera joan behar izaten dugu.

kale inkesta

Bergarako jaietako programari zerbait
gehituko zenioke edo zerbait kendu?Enrique Diaz
Langilea
BergaraAitzol Lenisoro
Ikaslea
BergaraAinhoa Narbaiza
Ikaslea
BergaraAriane Alberdi
Ikaslea
Bergara

Ume txikiendako gauza gutxi dagoela iruditu zait, eta kultura ekitaldiak ere ez dira asko. Baina zaila da denok gustura uztea. Antzerkiren bat edo sekula herrian egin gabeko emanaldi bereziren bat ekarriko nuke.

Oraindik ez dut programa ikusi, baina nik, barrakak egonez gero, nahikoa dut. Sokamuturra ere gustuko dut, eta korrika pixka bat egiten dut zezenen inguruan; baina aurten, ez dakit sokamuturrik dagoen.

Kontzertu gehiago ipiniko nituzke eta, zezenen orde, gazteendako gauza gehiago jarriko nituzke jaietan. Berdin zait zein musika talde, baina gazteen artean giro ona ipiniko duen talde bat ekartzea litzateke gakoa.

Programatik gustuko ekitaldiak aukeratzeko ditut, eta kito. Herri bazkaria eta haren aurreko jokoak eta ondorengo giroa ditut gustuko. Horri eutsi eta indartu egingo nuke, ezer gehitu edo kendu barik.

zorroztailea



Juan Luis Azkarate

Jose Mariaren suhia

"Bernie Ecclestone, Formula 1eko ugazaba (...) Valentzian egon zen eta Komunitateko presidente Francisco Campsekin eta hiriko alkate Rita Barberarekin batera iragarri zuen PPK maiatzaren 27an hauteskundeak irabaziz gero, Formula 1eko zazpi lasterketa Valentzian antolatuko zituela"

El Diario Vasco > 2007-05-11



irakurlearen txokoa

943 25 05 02

goienkaria@goiena.com

BERGARA

> Isunak, denei edo inori ez

Bergarar bat haserre dago udaltzain batzuen aldetik ikusi duen "diskriminazio" kasuarekin: "Autoa marra horiko leku baten utzi nuen, ohi bezala, aparkaleku guztiak beteta zeudelako; hala ere, ez nion inori trabarik egiten. Bada, isuna ipini zidaten. Baina, joan den zapatuan, hara non ikusten ditudan udaltzainak Santa Marina inguruan paseoan, marra horian aparkatutako autoz inguratuta, eta batek ere ez zuen isunik! Seriotasun pixka bat, mesedez! Gaizki aparkatuta dauden denei ipini, edo bati ere ez", dio.

ARRASATE

> Ointxe saskibaloi taldeari zorionak

Gazte arrasatear talde batek "zorionak" eman gura dizkie Ointxe saskibaloi elkartekoei eta, "batez ere, zapatuko Sagardo Eguna antolatutako zutenei". Musakolan banatutako sagardoa eta pintxoak "ederrak" ziren, euren iritzi, eta jaialdi osoa, oro har, "ideia bikaina" iruditu zitzaion. "Datorren urtean ere antolatzea animatzen ditugu", esaten dute.

BERGARA

> Aranzadiko aparkalekua, gehienetan, itxita

Aranzadi ikastolako patioa aparkatzeko zabaltzearen aldeko da bergarar bat, "baina aste bukaera guztietan, ez bakarrik pilota partidua daudenetan", diosku. "Aparkatzeko lekua denok behar dugu, ez bakarrik pilotazaleek", gaineratzen du berak.

usteak uste

Irati Agirreazaldegia

Eguraldia edo
giroa, baina
beroa

Bero. Egurats sargori honek jartzen nau ero. Irrati eta telebistako iragarpenak entzun ostein, besterik ezin genuen espero.

Klima aldaketa. Azken aldi horren gainean egin da mila berriketa. Berotzen ari omen da gure planeta. Lurra bero eta ni erreta.

Askorendako, eguzkia zeruan agertu orduko, eguraldi ona omen da. Baina euritsu, eguzkitsua zein lainotsu esatea egokiagoa izaten da.

Gero, norberak erabakiko du zer den eguraldi ona eta eguraldi txarra. Eguzkia nahi dute batzuek, zapaltzeko hondarra. Beste batzuek nahiago dute kazkabarra. Ez baita askoren gustuko eguzki galdatan lanean jardun beharra.

Ixo, eguraldia! Plana egiteko entzun beharreko emanaldia.

Goienkaria

Argiraraztailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Leire Kortabarria Erredakzioa Mireia Bikuña, Arantza Ezkibel, Irati Agirreazaldegia, Edurne Burgaña Oinarrizko diseinua Golo Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarate Maketazioa Imanol Soriano Publizitate arduraduna Mireia Larranaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Oñalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.comARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.comPublizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publiz@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale

Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako aldizkariaGipuzkoako
Foru AldundiaEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako SailburuordetzaEusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13 Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> BERGARA

Amaia Zubiria musikariak emango du aurtengo udako ikastaro bat UNEDen > 11



> ARETXABALETA

Berbetan programan parte hartu duten adinduei eskerrak eman zizkien Udalak > 13



> ARAMAIO

AHTren inguruko herri-kontsultako boto-paperak banatuko dituzte egun hauetan > 14

OÑATI > ARRIKRUTZEKO KOKA LASTER ZABALDUKO DUTE

Arrikruzeko kobak gordetzen duena, ekainaren 8tik aurrera, ikusgai

GIDOIA

Patxi Zubizarreta idazleak prestatu du kobako gidioa, bost hizkuntzatan

IBILBIDEA

500 metro inguru egokitu dituzte, guztira 14 kilometro dituen koban

EDURNE BURGAÑA > OÑATI

Oñatiko Arrikruzeko koban, 2003an hasi ziren txikuntze lanak egiten. Ideia garatzen hasi zirenetik hamahiru urte pasatu dira, denetara. Azkenean, ekainaren 8an irekiko dute kobarako atea.

Hamalau kilometro ditu kobak, baina ia 500 metro—ordubeteko bisita— txikuntze dituzte. Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziako arduradun Ikerne Altubek azaldu duenez, "sarrera naturalean tunel faltsu bat egin da, bertan dagoen gune sentsible bat ez kaltetzearren".

AZKEN UKITUAK EMATEN

Kobazulorako egin duten pasarella erretxinez eta zuntz optikoz egindakoa da. "Koba batean horrelako materialez egindako pasarella jartzen den lehenengo aldia da", zehaztu du Altubek.

Bisitariak entzun ahal izango duten gidioa ere gertu daukate. "Sistema informatiko bat da. Bisitan zehar, 9-10 puntu ezberdin daude. Bisitaria aurrera joan ahala, ikusi beharreko puntua argitu egiten da, eta horren gaineko azalpena hasi", azaldu du Altubek.

Patxi Zubizarreta idazleak egindako gidioa da bertan entzun ahal izango dena. "Bost hizkuntzatan prestatu dugu: euskara, espainola, katalana—bisitari garrantzitsua delako katalana—, frantsesa—gero eta gehiago doalako zabaltzen Iparraldean koba mundua— eta ingelesa—hizkuntza internazionala delako".

Geologia, hidrogeologia, paleontologia eta espeleologia gaiak jorratuko dira Zubizarretak idatzitako azalpenetan. "Gainera, aurrera begira, haurrentzako liburua ere kaleratuko da", esan du Altubek.

Ekainaren 8an irekiko da Arrikruzeko kobarako atea; baina, aurretik, ibilbidea osatzen duten gidioa eta argiztapena batera ipintzeko proba batzuk egingo dituzte. Proba nagusia ekainaren 2an egingo dute. Inaugurazio dataren gainean ere azalpenak eman ditu Altubek. Hala, bi arrazoiengatik erabaki da data hori: "batetik, lanek eskatzen zuten epea delako, eta, bestetik, politikoki hauteskundeetatik kanpo utzi nahi izan delako".

KOBARAKO BIDEA

Jaturabeko aparkalekutik kobarako atea eramatean duen bidearen erdian, Harrera Etxea egin dute. Sarrerak bertan erosi behar dira.

Leizea bisitatu nahi dutenek haraino joateko hainbat bide edukiko dute. Autobusez hurbiltzen denak Harrera Etxera arteko bidea egin ahal izango du eta, handik, kobara arteko bidea, oinez. Autobusak Jaturabeko aparkalekura bueltatu behar dira. "Hori argi eduki beharrekoa da. Koba parean, ez dago aparkatzeko tokirik; Jaturaben utzi behar dira autoak, eta autobusak ere bertara joan behar dira", esan du Altubek.

Autoz doazenek Jaturaben aparkatu, eta oinez egin behar dute leizea arteko bidea. "Horretarako, oinezkoentzako bidea egokitu da; 600 metro dira egin beharrekoak", gehitu du.

Martitzenetik domekara egongo da zabalik Arrikruzeko ate, baina hiru denboralditan banatu dute ordutegia: ekain eta irail artean, 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara; martxo, apiril eta urrian, goizez, ordutegi berak jarraituko du, baina, arratsaldeetan 03:00etatik 06:00etara; azaro eta otsail artean, 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 17:00etara. Ekainean, telefonoz ere hartu ahal izango dira sarrerak, 943 08 20 00an.



BERRIKUNTZA Pasarella egiteko, erretxina eta zuntz optikoa erabili dituzte; koba baten, lehenengo aldia da.

GOIENKARIA

ZENBAT BURU, HAINBAT ABURU

Aloña Mendiko Espeleologia taldeak ondo zaintzeko eskatzen du

"Orain hamar bat urte, Udalak koba bat ireki nahi zuten, eta Aranzadi elkartearen espeleologo batzuek Gesalibarko zabaltzea proposatu zuten", azaldu du Andoni Olalde Aloña Mendi kirol elkartearen Espeleologia taldeko kideak. "Gure taldekooi astakeria iruditu zitzaigun, eta beste proposamen bat egin genuen. Bagenekien Arrikruzten sarreratxo bat zegoela, eta gure kabuz zabaldu eta sartu egin ginen", gaineratzen du Olalde.

Kanpotik sartutako edozerk kalte egiten duelokan dago Olalde. "Oso delikatu da koba. Lehen, koba nola zegoen jakiteko ikerketa egin genuen, eta nahiko aireztatuta dagoela ikusi genuen".

Kobak kontserbatzearen alde daude Aloña Mendiko espeleologoak, "eta jendeari erakutsi egin behar zaio zer kontserbatu. Akaso, 14 kilometro dituen kobatik 400 zabaltzeak merezi du, helburua lortuko bada".

UDALA > DIRULAGUNTZAK

Ia 800.000 euro bideratuko ditu Udalak dirulaguntzak emateko

Buletinean argitaratu eta gero, hilabete izango da 22 esparrutan dirulaguntzak eskatzeko

Dena den, badira bestelako epea duten zenbait dirulaguntza; Udal webgunean kontsulta daiteke

UBANE MADERA > ARRASATE

Udalak 2007rako zehaztutako dirulaguntza programaren deialdia onartu du. Horren arabera, 766.678,88 euro bideratuko ditu herriko elkarte eta bestelako enpresen eta proiektuak dirulaguntzeko.

ZEINEK ESKA DEZAKE

Laburbilduz, Udalak 22 esparrutarako dirulaguntzen deialdia egitea onartu du, lau sailetan banatuta: Euskara eta Kultura saila, Gizarte sustapenerako saila, Garapen estrategikoaren saila eta Aukea -kirolak.

Dirulaguntza halakoren bat jaso ahal izango dute Arrasaten egoitza eta jardun eremua duten pertsona, elkarte edo entitateek; eta, salbuespen moduan, egoitza eta jardun eremua Arrasaten izan ez arren, Udalak interesgarritzat jotzen dituen ekintzak edo proiektuak lantzen dituzten bestelako entitateek ere bai.

NON ESKATU BEHAR DIRA

Dirulaguntzak eskatzeko, inprimakiak behar bezala bete ostean, hiru lekutan aurkez daitez-

ke: Biztanleen Arreta Zerbitzuan, Erregistro Orokorrean edo Musakolako kiroldegiko bulegoetan. Azken horretara eraman behar dira kirolarekin lotutako dirulaguntzen eskaerak.

Orokorrean, dirulaguntzak eskatzeko hilabeteko epea zabaldu dute. Hori bai, badira bestelako epeak dituzten dirulaguntza batzuk, adibidez, saltokien edo

bestelako negozioen errotuluak edo irudi korporatiboak euskaraz jartzeko dirulaguntzak urte osoan eska daitezke.

ARAUAK NON ESKURATU

Argitaratuta daude dirulaguntzen arauak Udalaren webgunean, beraz, han kontsulta daitezke zehaztasun guztiak: *arrasate-mondragon.org*. Horrez gain, Gazteen Informazio Bulegoa, Emakume Txokoa eta Musakolako kiroldegian eskura daitezke.

Arautan zehazten dute zertarako emango duten dirua: besteak beste, kirola eta kultura sustatzeko, irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko, euskararen erabilera bultzatzeko eta garapen iraunkorra lantzeko.

Dirulaguntzak, sailez sail

Euskara eta kultura

Kultura entitateen ekintzak
Euskara ikasteko
Errotuloak, irudi korporatiboak
Euskaltegiak
Euskararen erabilera sustatzen duten elkarteak
Ikastetxeen ekintzak
Ikasleen gurasoen elkarteak
Irabazi amorik gabeko elkarteak

Gizarte sustapena

Erretiratuaren elkarteak
Presoen senideen garraio gastuetarako
Udal tasak ordaintzeko
GKEen lankidetzak programak

ITURRIA: ARRASATEKO UDALA

Gizarte ekintza

Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lantzeko
Gazteendako proiektuak
Herriko musika taldeendako Aisialdi berrirantzar egiten duten herritarrentzat
Droga-menpekotasun tratamendurako laguntza

Garapen estrategikoa

Ingurumen jarduerak
Lanpostu berriak sortzeagatik

Aukea erakunde autonomoa

Kirol taldeen jarduerak
Arrasateko kirol taldeen ekintzak

POLITIKA > HAUTESKUNDEAK 07

Arrosak banatzen hasi dute kanpaina

PSE-EEko alkategai Paco Gartzia herritarrekin zuzenean berbetan eta haien proposamenak entzuten izan zen egubakoitzean. Besteak beste, euren kanpaina eta legealdirako dituzten proposamenak -batez ere Arrasateko auzo guñeak birmoldatzeko- azaldu zituen. Gaineratu zuen, herritarrek bozka PSE-EEri eman ez gero, kanpotarrendako edo etorkinendako politika linguistikoak eta integrazioan oinarritutakoak egingo dituztela. Azoka txikian, arrosak ere banatu zituen.



GOITB



FATXADA PSE-EEren egoitzak itxura hau zuen erasoen ondoren.

GOIENKARIA

KALE ERASOA > PSE-EE-REN EGOITZARI ERASOA

PSE-EEren egoitzaren aurka pintura bota zuten

Pintura hori-gorritz zikindu zuten PSE-EE alderdiaren Olarte kaleko egoitza

AMAI A ZALDUA > ARRASATE

Joan den eguen gauean, PSE-EEren egoitza erasotu zuten pintura hori-gorriarekin; ondorioz, egoitzaren azpian dagoen kafe-tegiak ere kalteak izan zituen.

PSE-EEEN ERANTZUNA

Paco Gartzia Arrasateko alkatezarako hautagaiak gogor gaitzetsi zuen ekintza, eta ezker abertzaleko "alde erradikalari" leporatu zion zuzenean. Horrez gain, PSE-EEko buruak adierazi zuen maiatzaren 4ko

asteburuan ere erasotu egin zituztela; izan ere, herritarrek informatzeko pankarta bat jarri zuten fatxadan zintzilik, eta kendu egin zieten.

Paco Gartzia justiziaren aurrean salaketa jartzeko asmoa azaldu zuen, eta eskatu zion ezker abertzaleari ekintza horiek salatzen.

Amaitzeko, gaineratu zuen ezker abertzaleari demokrazia hitz egiterakoan "ahoa betetzen" zaiola, baina horrela "ez dagoela demokraziarik".



AGERRALDIA Hainbat herritar, kale agerraldian.

GOIENKARIA

POLITIKA > HAUTESKUNDEAK 07

Atzerritarren aldeko mozioa egin du EB-Zutik koalizioak

Haiek hauteskundeetan parte hartzeko eskubidea izan beharko luketela uste dute

U.M. > ARRASATE

Hauteskundeetan harira, Ezker Batua-Zutik koalizioak mozioa aurkeztuko du Udalak egiten duen hurrengo osoko bilkuran. Hain justu ere, SOS Arrazakeria elkartearen mozioa aurkeztuko diote osokoari.

Eskatuko dutena da Arrasaten bizi diren atzerritarrei botoa emateko eskubidea aitortu diezaietela. Hala azaldu dute Ander Rodriguezek eta Julia Mongek, EB-Zutik koalizioako bozeramai-

leek: "Europatik kanpoko atzerritarrek, Norvegiakoek izan ezik, ez dute hauteskundeetan parte hartzeko eskubiderik, ez hautagai moduan ezta hautesle moduan ere".

ETXEBIZITZA POLITIKA SALATZEN

Bestalde, joan den astean iragarri zuten moduan, Arrasateko Udalak azken legealdian lantzen duen etxebizitza politika salatzen zuten Herriko plazan.



LIBURUAK Bergarako liburutegia *Irakurri, gozatu eta oparitu* programaren barruan dago.

JOSETXO ARANTZABAL

EUSKARA > 'IRAKURRI, GOZATU ETA OPARITU'

Euskal liburu gehiago irakurtzeko egitasmoa

Liburutegian, 100 liburu daude; bat maileguan hartzea da helburua. Gainera, %50 arteko deskontuak daude liburuak norbaiti oparitzeko

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Euskal liburuak irakurtzeko kanpaina jarri du martxan Jardun elkarteak Topagunearekin eta herriko liburutegiarekin batera. "Jendeak irakurtzen du, baina euskaraz irakurtzeko joera gutxi dauka oraindik, eta hori bultzatu nahi dugu egitasmo honekin. Jendeak euskarazko liburuak irakurtzeko ohitura hartzea da helburua", azaldu du Jarduneko Nerea Mendizabalek.

100 LIBURU AUKERAN

Irakurri, gozatu eta oparitu da kanpainaren izena, eta euskaraz idatzita dauden 100 liburu jarri dituzte liburutegian, irakurleen eskura. "Mota guztietako liburuak daude, genero eta adin guztietakoak. 100 liburu horietako 90 Patxi Zubizarreta idazleak aukeratu ditu, eta liburu berberak daude herri guztietan. Gainerako 10 liburuak herri bakoitzak aukeratu ditu. Bergarako

kasuan, Jarduneko eta liburutegiko ordezkarien artean aukeratu ditugu. Bergarari buruz edo Bergarako idazleek idatzitakoak dira", argitu du Nerea Mendizabalek.

%50EKO DESKONTUA

Irakurri, gozatu eta oparitu egitasmoarekin, 100 liburu horietako bat maileguan hartzea da asmoa. Liburuak bueltatzerakoan, fitxa bat bete eta %25eko deskontu txartela jasoko du irakurleak, liburu hori norbaiti oparitzeko. Gainera, Jarduneko bazkidea bada, %50eko deskontua izango du. Elkar denda aplikatuko diote deskontua.

HAUTESKUNDEAK 07 > EZKER BATUA

"Bizi baldintzak hobetzeko" aurkezten da Ezker Batua

Herritarren parte-hartzea errazteko bideak ezarriko dituela dio

O.E. > BERGARA

Ezker Batua-Berdeak alderdiak datozen lau urtetarako dituen asmoen berri eman du. Alderdi horrek bergarar guztien bizi baldintzak hobetu nahi dituela eta, horretarako, etxebizitza duin baten alde lan egingo dutela dio, babestutako etxebizitza

tzak eta alokairu sozialak bultzatuz. Garapen iraunkorraren alde ere egingo dutela esan dute alderdiko lehen hiru hautagaiek, eta erraustegiaren aurka egingo dutela zehaztu dute. Herritarren parte-hartzea errazteko bideak ezarriko dituztela ere esan dute.

Bestalde, "ezkerraren espazioa betetzeko" asmoa duela esan du Ezker Batua alderdiak. "Bergara ezkertiarra da, eta badu indarra Udalari politika aurrerakoien eta elkartasun sozialaren alde egiteko eskatzeko", diote EBko kideek.

> DIRULAGUNTZAK

Gizarte zerbitzuen arloan diharduten taldeendako dirulaguntza emango du Udalak

Gizarte zerbitzuen arloan lan egiten duten taldeei diruz laguntzea erabaki du Udalak, eta dirulaguntza hori arautzen duten oinarriak onartu ditu dagoeneko. 22.591 euroko aurrekontua du dirulaguntza horrek, eta Bergarako herrian garatzen diren jarduerak zehatzak finantzatzeko erabiliko dute. Dirulaguntzak jasotzeko baldintzen artean, hauek daude: legalki eraturako elkarteak izatea; Bergaran egitea jardueren egitaraua; herritarren arteko elkartasuna sustatzea edo jarduerak, nagusiki, talde hauei zuzentzea: bazterketa arazoak dituztenei, gutxituei, hirugarren adinekoei eta zerbitzu sozialen beharra dutenei. Eskerak ekainaren 10a baino lehen egin behar dira udaletxean.

> EZOHIKO BILKURA

San Juango eremu industrialaren hirigintza garapenerako hitzarmena eztabaidatu dute

San Juan auzoko Larramendi eremu industrialaren hirigintza garapenerako Sprilur SL enpresarekin adostutako hitzarmena behin betiko onartu behar zuen udalbatzak, egubakoitzean egingako presazko ezohiko bilkuran. Gai horrekin batera, beste hiru gai ere eztabaidatu behar zituzten egubakoitzeko ezohiko osoko bilkura horretan: Domingo Irala kalean petrilarren hornikuntzaren adjudikazio proposamena, Bergarako herrian lanpostuak sortuko dituen enpresa proiektu bati dirulaguntzak emateko oinarrien onarpena eta azokako postu bat berreskuratzeko proposamena onartzea. Gai horiek presazko ezohiko bilkuran sartu zituzten egubakoitzean, 18:00etan.

HEZKUNTZA > EKAINEN HASIKO DITUZTE

UNEDeko uda ikastaroetako matrikula epea zabalik dago

'Kanta aitzaki' da aurtengo nobedadea, eta Amaia Zubiria izango da irakaslea

O.E. > BERGARA

Guztira, 32 ikastaro antolatu ditu UNED ikastetxeak udarako, eta matrikula epea zabalik dago. Ikastaro horiekin batera, aurreko edizioetan ere egin dituzten ikastaro arrakastatsuenak daude, horien artean *Liburutegia praktikan* izenekoa edo Euskal

Herriko historiari buruzkoa. Udako ikastaro horiek ekainean hasiko dituzte, eta maiatzaren 31 baino lehen eman behar da izena. Gehienez, 20 ordukoak dira ikastaroak, eta asko arratsaldez izango dira.

AURTENGO NOBEDADEA

Aurten, *Kanta aitzaki* izeneko ikastaroa emango dute. Kantuari buruzkoa da, eta arnasketak, gorputzaren esanahia, ahots kokapena edo espresioa bezalako gaiak landuko dituzte. Amaia Zubiria kantaria izango da irakaslea.



IKASTAROAK UNED unibertsitateak Bergaran duen egoitzan izango dira ikastaroak.

JOSETXO ARANTZABAL



URBIAKO FONDAN Elkartrukean parte hartu duten ikasleak, Urbiara egindako irteeran.

TXANTXIKU IKASTOLA

ELKARTRUKEA > FRANTSESAK GUREAN

Chateaubernardeko 32 ikasle Oñatin egon dira

Aste bateko egonaldia egin dute, Ikastolako eta Larraña Institutoko ikasleen etxeetan

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Txantxiku ikastolako eta Larraña institutoko ikasleek martxoan Chateaubernardera egindako bisitaren ordaina jaso dute: DBHko bigarren mailako 32 ikasle eta hiru irakasle aste bateko egonaldia egin dute Oñatin. Zapatuan itzuli ziren.

HAINBAT BISITA

Oñatin eman duten astean, askotariko bisitak egin dituzte. Hala, Oñatiko paisaia ezagutzeko, irteera egin zuten Urbiara; Natur Eskolako eskutik, kobazulak ere ezagutu zituzten, eta Unibertsitate ezagutzeko aukera izan zuten.

Egubakoitzean, San Martinen, herri kirolak ezagutzeko bidea izan zuten. Halaber, pilota jokoaren nondik norakoak landu zituzten, eta txalaparta saioa ere egin zuten.

Oñatiko ikasleek martxoan Chateaubernardera egindako bisitatik, Argentinara bidaltzeko materiala ekarri zuten. Oraingoa ere, halaxe egin zuten. Materiala senidetze batzordeak duen lokalean utzi zuten.



KARLOS OLALDE

Garikoitz Bravok irabazi zuen Arantzazun

Caja Rural taldeko Garikoitz Bravok irabazi zuen zapatuan Arantzazura igoera, 24:06ko denborarekin. Hasierako kilometroetan, aurrera egin zuen, eta Sindikan zegoen helmugara bakar-bakarrik iritsi zen. Harekin batera, Jon Urtizbera eta Julen Mitxelena igo ziren podiumera. Halaber, Oñatiko txirrindularien artean, azkarrena Oier Olalde izan zen, eta 11. tokian sailkatu zen. 41 txirrindulari abiatu ziren Arantzazurako igoeraren 38. edizioan.

IRTEERA > HARRERA EGIN ZIETEN UDALETXEAN

Moralejara bisita egin du oñatiar talde batek

Besteak beste, Virgen de la Vega erromerian parte hartzeko aukera izan zuten 60 lagunek

M.B. > OÑATI

Giro bikainean pasa zuten aste bukaera Moralejan (Badajoz). Oñatiko 60 bat lagunek parte hartu zuten, Moralejako Udalak eta hango zazpi elkarterek antolatutako bidaian; batzuek 34, autobusetan egin zuten bidaia, eta gainontzekoek, auto partikularretan. Moralejan, Oñatin bizi izandako beste batzuekin elkartu ziren. Izan ere, Moralejako seme-alaba asko Oñatin bizi dira, eta harremanak estutu dituzte azkenaldian bi herriok.

EKITALDIAK

Aste bukaerako egitarau zabaldua gertatu zuten Moralejan. Agintarien harrera ofiziala jaso eta gero, jaialdia izan zuten: ber-

tako dantzak, olerkiak eta kantak ikusteko eta entzuteko aukera izan zuten. Halaber, Moraleja ezagutzeko bidea izan zuten, eta gazteendako egokitutako zentro bat bisitatu zuten.

Zapatuan, zezenketa bat ikustera joan ziren. Victorino Martin ganaduzalearen zezenak gertutik ikusteko aukera paregabea izan zuten. Eguna borobiltzeko, beste jaialdi baten parte hartu zuten.

Domekarako utzi zuten aste bukaerako ekitaldi nagusia: Virgen de la Vega izeneko erromerian parte hartu zuten.

Moralejako Udalak eta elkarterek antolatutako ekitaldiak bukatuta, gehienek Oñatirako bidea hartu zuten.



TALDEA Argazkian, bidaia egin zuten oñatiarrak.

GOIENKARIA

> ELIZKIZUNA

Maiatzaren 6tik, domekero, Urbiako ermitan meza ospatuko dute, Domu Santu egunera arte

Aspaldiko ohiturei eutsi guran, maiatzaren lehenengo domekatik hasita eta Domu Santu egunera arte, domekero, meza ospatuko da Urbiako ermitan. Hala, aurtengo meza sorta maiatzaren 6an hasi zen.

Domeketan ez ezik, beste jai egun batzuetan ere, meza ospatuko dute bertan: Santiago, San Inazio eta abuztuko Andre Mari egunetan, hurrenez hurren. Aita Joseba Etxeberria Arantzazuko frantziskotarrak zuzenduko ditu elizkizunak, goizeko hamaiakak eta erdietan hasita.

Urbiako ermita 1924an inauguratu zen, eta orduetik eutsi izan diote domeketan meza ematearen ohiturari.

> DEIALDIA

1981ean jaiotakoek kinto afaria egingo dute, zapatuan, maiatzaren 19an, Bikoitz jatetxean

1961eko irailetik 1962ko abendura arte jaiotako lagunek ospakizuna izango dute; izan ere, kinto afaria egingo dute, maiatzaren 19an, Bikoitz jatetxean. Afaldu aurretik, hildako kintoen aldeko meza ospatuko dute Agustindarren elizan, arratsaldeko 07:30ean. Meza ondoren, Izarraitz tabernan, poteoa hasiko dute. Afaria bederatzia eta erdietan hasiko da Bikoitz jatetxean.

Kinto afarian parte hartzeko izena eman daiteke oraindik, eguaztena, maiatzaren 16a, baino lehen. Horretarako, antolatzaileek bi telefono eta bi helbide elektroniko jarri dituzte interesuen eskurako: 665 72 37 09 (Juan Mari) eta 645 73 24 12 (Jabi); eta iturrran@euskalnet.net eta akelena@euskalnet.net.

ARETXABALETA > BERBETAN EKIMENA

Adinduek egindako testigantzak eskertzeko ekitaldia egin du Udalak

Udalak Aretxabaleta Berbetan ekimena aurkeztu zuen jendaurrean. Horrez gain, ekitaldia baliatu zuten informazioa eman duten adinduei eskerrak emateko

I.B./A.B. > ARETXABALETA

Eguenean, Aretxabaletako Udalak ekimen berezia egin zuen Aretxabaleta Berbetan proiektuan esku hartu duten adinduei eskerrak emateko, eta proiektuaren beraren nondik norakoa azaltzeko. Azatza auzoan dagoen Otalora jauregian egin zuten ekitaldi hori.

Eskoriatzan, aurreko astean aurkeztu zituzten proiektuaren emaitzak, eta orain, Aretxabaletaren txanda izan da. Proiektuaren protagonistak izan direnak aukera izan zuten eurek kontututako istorio eta bizipenek eman duten fruitua ikusteko.

TESTIGANTZEN ONDAREA

Berbetan proiektuaren helburua da herriko nagusienengandik aspaldiko ohitura, bizipen eta hizkera jasotzea. Horretarako, azken urteotan, makina bat elkarrizketa egin dizkiete herriko hainbat aitona eta amonei.



PROTAGONISTAK BATUTA Argazkian Aretxabaletako historiaren eta usadioen zati garrantzitsu bat jasotzen lagundu duten adinduak, Azatza auzoan.

MIRARI ALTUBE

Antolatzaileek nabarmendu dute elkarrizketa horietatik jasotako informazio hori guztia oso baliagarria dela; uste baino gauza gehiago jaso dituztela, hain

zuzen ere. "Eurei esker izan dezakegu gure historiaren eta ondarearen berri; ezinbestekoa da iragana eta izan garena ezagutzea", azaldu zuten.

Bestalde, Udaleko ordezkariak jakinarazi zuten testigantza horiek guztiak udalaren webgunean eskuragarri jarri dituztela, edonork ikus ditzan.

Horrez gain, Udaleko ordezkariak testigantzak eman dituzten adindu guztiei euren grabazioen kopia bana eman zieten, egindako lana eskertzeko.

> ARETXABALETA

Ezker abertzaleari babesa emateko batu ziren hainbat herritar zapatu eguerdian

Herenegun, zapatua, herritar multzo handi bat elkartu zen Herriko plazan, ezker abertzaleko proiektuari babesa emateko eta legez kanporatzea salatzeke.

Aretxabaletako Sozialista Abertzaleak taldeko ordezkariak jakinarazi zuten "pertsonek eta ideien kriminalizazio izugarria" bizi dela, eta hori "lotsagarria" dela, "eraso hori demokraziaren ize-nean jokabide faxistak erabiltzen dituztenek egiten dutelako".

Horren guztiaren aurrean, ordezkariak azpimarratu dute hauteskundeetan egongo direla eta ezker abertzalearen programa aurrera eramango dutela.



Ezker abertzaleko kideak eta babesleak, udaletxe aurrean. JOSETXO ARANTZABAL

ESKORIATZA



GOITB

Kamioi batek zama galdu zuen

Istripua egon zen egubakoitzean, 18:00ak aldera, Aingeruko Goarda biribilgunean. Argazkian ikusten den kamioiak zama galdu zuen, nahiko pieza handi eta pisuzkoak.

Zorionez, inor ez zen zauritu. Hala ere, ezbeharraren ondorioz, zirkulazioa eten egin zuten, eta ilarak egon ziren 20:00ak arte.

ESKORIATZA

KZgunean, hila bukatu bitartean, hiru tailer

I. BARANDIARAN > ARETXABALETA
KZgunean, buru-belarri dabilta ikastaroak antolatzen. Hilabete hasieran, Adobe Acrobat Readerren gaineko saioa egin zuten, euskaraz. Joan den egubakoitzean, berriz, sinadura elektronikoren eta elikadura segurtasunaren gainean aritu ziren, hurrenez hurren.

Datorren egubakoitzean, sinadura elektronikoa eta egunkaria Internetez irakurtzea landuko dituzte. Bi ikastaroak euskaraz izango dira; lehena, 11:00etan, eta bigarrena, 12:00etan.

Hilaren 25ean, enplegua lortzeko irakaspenak emango dituzte. 11:00etatik 13:00etara bitartean egingo dute.

ABIADURA HANDIKO TRENA > HIRU PERTSONARENDAKO BOTOAK BIDALIKO DIRA ETXE BAKOITZEKO

Herri kontsultarako boto-txartelak etxez etxe banatuko dira egunotan

Boto-txartel gehiago behar izanez gero, kultura etxean egongo da hartzeko aukera galdeketa egunean

Proiektuaren kontrako taldeak beste eskuorri bat banatuko du, trenak udalerrian egingo dituen kalteak azalduz

MIRIAN BITERI > ARAMAIO

Abiadura Handiko Trenari buruzko herri galdeketa prestatzeko lanak aurrera doaz. Oraingo astean kontsultan erabiliko diren boto-txartelak banatuko dira etxez etxe. Etxebizitza bakoitzeko, hiru pertsonarendako botoak bidaliko dira, ezezko eta baiezko hiruna.

Hala ere, txartel gehiago behar izanez gero, kultura etxean jarriko den mahaian egongo da beroiek hartzeko aukera. Udal hauteskundearen egun berean izango da galdeketa: hilaren 27an, hain zuzen ere.

09:00ETATIK 20:00TARA

Euskal Y-aren gaineko botoa 09:00etatik aurrera emateko aukera izango dute aramaiorrek. 20:00ak arte bozkatu ahal izango dute. Ondoren, zenbaketa egiteko



ELKARRETARATZEA Abiadura Handiko Trenaren kontrako elkarretaratze baten irudia, Herriko plazan.

ARTXIBOA

ordua iritsiko da. Han izango dira herri kontsultaren aldeko batzordea osatzen dutenak: alegia, Udalean ordezkariak duten alderdi politikoak eta AHTren aurkako Aramaioko taldekoen ordezkariak. Bake epaileari ere zenbaketa egon dadila eskatu diote.

Emaitza gutun-azalean sartu eta Udalan egongo da astebetez, herritarrendako eskuragarri. Batzordean hala adostuta, komunikabideetara ere zabalduko da.

Euskal Y-aren aurka dauden herritarrek, hala ere, ez dute beste bide batzuetatik jotzea bazter-

tzen. Haien lantzen dabilzan kanpainaren barruan, oraingo astean bertan, Abiadura Handiko Trenak udalerrian eragingo dituen kalte zehatzen berri emango dute, etxez etxe banatuko duten beste eskuorri baten bitartez.

ANTZUOLA

Aizkolaritza erakustaldia, ilegalizazioaren kontra

Ilegalizazioaren aurkako herri kirol erakustaldi berezia egon zen joan den egubakoitz arratsaldean Antzuolan. Izan ere, EAE-ANV alderdiak antolatuta, *Apartheid ez*, *Ilegalizaziorik ez* errotuluak zeramatzaten bi enbor zatirekin aritu zen aizkolaria bat.

EAE-ANV herriko hautagai zerrenda aurkeztu zuen, eta aizkolaritza ikuskizun berezi hori izan zen sarrera ekitaldia. Horren ondoren, Aitor Otegi bertsolari urretxuarrak emanaldia egin zuen eta, segidan, zerrenda bera aurkeztu zuten hautagaiek. Pedro Mari Iturbe 29 urteko zumarragatarra da alkategaia.

Herritar asko batu zen alderdiari babesa emateko, eta luntxa izan zuten guztiek.



JOSETXO ARANTZABAL

ELGETA

Posta bidez bozkatzeko aukera dago oraindik

Posta bulegora jo behar da, eta Elgetan zabalik dago hauteskunde bulegoa

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Eguenera arte, hilaren 17a, dago zabalik posta bidezko botoa eskatzeko epea. Elgetan Correosek ez dauka bulego ofizialik, baina Jose Luis Olabarria postariari eskatu diezaiekete herritarrek posta bidezko botoa emateko tramiteak burutzeko. Horretarako, Nortasun Agiria aurkeztea ezinbestekoa da; baita eskaera orria zuzen betetzea ere.

HAUTESKUNDE BULEGOA

Beste aukera bat Patxi Basauri buru duen Nacionalistas de Elgeta-Elgetako Abertzaleak hautesle-zerrendak zabaldu duen hauteskunde bulegora jotzea da.

Domingo Iturbe kaleko 8. zenbakian zabaldu dute bulegoa, eta botoa posta bidez egiteko interesa duten elgetarrei laguntzeko antolatu dute. Aurreko astean, bi egunetan egon da zabalik. Asteon ere zabalduko dute.

Gaur, astelehena, eta bihar, martitzena, izango dute herritarrek bertara jotzeko aukera. Ordutegia honakoa da: 19:00etatik 20:00etara.

GATZAGA

Asteburuan, loreak landatzeko eguna

MIRARI ALTUBE > GATZAGA

Lurra noiz ekarriko zain zeuden Gatzagan, udaletxe albo lorategia txukuntzeko, eta, dagoeneko, bertan dago. Belarra erein dute orain, eta gero, landareak eta zuhaitzak landatuko dituzte. Gurel elkarte-guraso eta umeak ibiliko dira jardun horretan datorren aste bukaeran, baina eguna oraindik ez dute zehaztu. Lorategiko eskumako aldean, zuhaitz bi landatuko dituzte, eta ezkerrean, txintxaunarendako lekua utziko dute. Gainera, lorez apainduko dute.

Udaletxeko lorategian bakarrik ez, herri guztian landatuko dituzte loreak, San Migel eta goiko plazako loreontzietan, esaterako.

Kirola



> **FUTBOLA**
Bergarak ligako azkeneko norgehiagoka 2-3 galdu zuen > 18



> **ESKUBALOIA**
Bergarak 31-27 irabazi zuen Gazteluetaren aurka > 19



> **SASKIBALOIA**
Eskoriatzako neskek ez zuten finalerako txartelik lortu > 20



> **MENDI BIZIKLETA**
Patxi Cia nafarrak irabazi zuen Arrasateko lasterketa > 21



IRABAZLEA Ritxar Fernandez, Oñatiko plazako helmugara iristen; pozik geratu zen egindako lanarekin.

JOSETXO ARANTZABAL

ARRASATE-OÑATI > 25. EDIZIOA JOKATU ZEN ZAPATUAN

Ritxar Fernandez izan zen azkarrena Oñatin

Arrasate-Oñati lasterketaren 25. edizioa jokatu zuten zapatuan

Ekaitz Osa eta Ramon Otegi sailkatu ziren bigarren eta hirugarren

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Arrasate-Oñati lasterketak zilarrezko ezteiak bete zituen zapatuan. Eguraldi sargoriarekin, 128 korrikalari irten ziren Arrasateko Garibai pasealekutik. Lasterketak zituen 11 kilometro eta 700 metroak egin ondoren, Ritxar Fernandez oñatiarra iritsi zen lehena helmugara, 38:05eko denbora eginez. Haren atzetik, Ekaitz Osa oñatiarra eta Ramontxu Otegi tolosarra sailkatu ziren.

Halaber, emakumeen artean Isabel Xisto basauriarra izan zen azkarrena, 50:20ko denborarekin.

BERO HANDIA

Hasierako kilometroetatik, erritmo bizia jarri zuten korrikalariak. Hala, berehala, taldetxo bat sortu zen lasterketa buruan: Ritxar Fernandez eta Aitor Uribealago bergararra pasatu ziren aurretik, Zubillaga auzotik. Haien atzetik, bigarren talde baten, Ekaitz Osa, Ramon Otegi eta Asier Urdanpilleta pasa ziren Madalena auzotik. "Maila izugarria egon da gaurko lasterketan. Lehenengo bost tokietan sailkatu garenon artean, edozeinek zuen irabazteko aukera", azaldu zigun, amaieran, Ritxar Fernandezek.

Madalena auzotik helmugara bitartean, aldaketa dezente egon zen lasterketa buruan. Osak eta Otegi aurrera egin zuten, eta Uribealago, berriz, bosgarren lekuraino jaitsi zen. Kasablankatik igota, Kale Zaharra zeharkatu zuten, eta, plazara, Ritxar Fernandez iritsi zen, bakarrik.

Haren atzetik, azken metroan, Ekaitz Osa jarri zen bigarren, Ramon Otegi gaindituta.

EMAKUMEAK

Urtero legez, emakume gutxi animatu zen Arrasate-Oñati lasterketan parte hartzera. Isabel Xis-

to irabazlearekin batera, Edurne Elkoroiribe (50:42) eta Mari Sol Ramos (51:32) oñatiarrak igo ziren irabazleen podiumera.

sailkapenak

LEHENENGOAK

1. Ritxar Fernandez	38:05
2. Ekaitz Osa	38:42
3. Ramon Otegi	38:43
4. Asier Urdanpilleta	38:53
5. Aitor Uribealago	39:27
6. Iker Maiora	41:05
7. Julen Garitano	41:18
8. Asier Osinaga	42:02
9. Mikel de la Presa	43:07
10. Iker Sarabia	43:16

Yerai Varela oñatiarrak irabazi zuen Ojala Zelaiko krosa, atzo, domeka

Eguraldi haizetsuarekin jokatu zen atzo, Aretxabaletan, zortzi kilometro eta 400 metro dituen Ojala Zelaiko krosa. Hala, haizeari aurre eginez, 80 korrikalari abiatu ziren eta, guztien artetik, Yerai Varela oñatiarrak lortu zuen garaipena. Zuhaitz Ezpeleta arrasatearra eta Eduardo Casado sailkatu ziren bigarren eta hirugarren tokietan.

Emakumeen artean, Onintza Zeberia izan zen azkarrena. Harekin batera, Maria Mendibe eta Mari Fran Alonso igo ziren podiumera.

Lasterketa nagusiaren aurretik, umeendako beste proba batzuk egon ziren. 150 neska-mutikok parte hartu zuten lasterketetan. Antolatzaileak gustura geratu ziren bukaeran.



Yerai Varela helmugara iristen.

JOSETXO ARANTZABAL



Goiko ilaran, ezkerretik hasita: Markel Uriarte, Raul Perez, Iñaki Viejo, Mikel Iglesias, Jon Etxeberria, Alberto Lopez, Xabier Arnaiz, Ikeia Iborra, Jose Mari Gallastegi, Aitor Urrutia, Iker Blazquez txirrindulariak.

Beheko ilaran, ezkerretik hasita: Iban Agirreurreta, Danel Mazmela, Aitziber Azaldegi, Rafa Cordero, Ander Kortabarria, Adrian Ugalde, Asier Uroz, Mikel Uribekanos, Zigor Urain, Fermin...



a Txirrindulari Elkarte 06-07



Agirre, Mikel Arriolabengoa, Danel Ramirez, Aitor Etxebarria, Markel Juaristi, Iñigo Roldan, Martin Berrizbeitia, Oier Garro, Jon Ander Guerrero, Oscar Oncala, Jon Altuna eta Raul Zugasti eta Bingen Lopez. Argazkian, Bingen Lopez, Jon Ander Kortabarria, Markel Diego, Raul Blazquez, Igor Lazkano eta Igor Baz falta dira.



LEHENENGO ERREGIONALA > DENBORALDI BUKAERA

Bergarak galdu egin du denboraldiko azken partidua

BERGARA

2-3

ALLERRU

Bergara > Unai, Urteaga, Oregi, Agirrezabal (Baltzategi, 75. min.), Nafarrete, Cabanillas, Crespo, Eldin (Hurtado, 35. min.), Azpiazu, Ibarrondo eta Badillo (Ajuria, 60. min.).

Elgoibar > Etxaniz, Fernandez, Brintxon, Gorca, Imaz (Oier, 65. min.), Xabier (Iker, 75. min.), Altzu (Jon, 85. min.), Azkona, Mikel, Kerman eta Fernandez.

Epailea > Eduardo Ramos Ibartzabal jauna.

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Bergarak ezin izan zuen garaipen batekin bukatu denboraldia etxekoen aurrean. Zapatuan, Agorrosinen, Neka Galanen mutilek denboraldiko azkeneko partidua jokatu zuten; partidua ez zen ona izan eta, azkenean, etxeko taldeak 2-3 galdu zuen Allerruren aurka.

GOLA, BIGARREN MINUTUAN

Hasieratik jarri zitzaion partidua maldan gora etxeko taldeari. Bigarren minutuan, Allerruk partiduko lehenengo gola egitea lortu zuen eta, 14. minutuan, bigarrena egin zuen. Bazirudien Allerruk erraz irabaziko zuela partidua, baina etxeko taldeak markagailuko errenta txikitzea lortu zuen 18. minutuan (1-2).



LEHIA Jon Urteaga eta Imanol Cavanillas baloia buruarekin jotzeko gertu.

JOSETXO ARANTZABAL

Atsedena gainean zela, lehenengo Hurtadok eta gero Azpiazuk partidua berdintzeko aukera politak izan zituzten, baina biek ala biek huts egin zuten.

Bigarren zatian, falta bidez, Allerruk hirugarrena egin zuen. Gero, Imanolek Bergararentzat bigarrena egin zuen; gol horrekin, lehiak bizitasun pixka bat hartu

zuen, baina ezer gutxirako balio izan zuen. Azkenean, etxekoek galdu egin zuten. Denboraldia 10. postuan amaitu du Bergarak, 39 punturekin.

PREFERENTE MAILA

Irudi kaskarra eman zuen Aloñak atzo, etxeko zaleen aurrean (1-2)

Denboraldia amaitzen ari da, eta atzo, Azkoagainen, Aloña Mendiko mutilen jokoan nabaritu egin zen.

Norgehiagoka txarra jokatu zuen etxeko taldeak. Lehia nahiko ondo hasi zuten; lehenengo 10 minutuetan, joko txukuna egin zuten. Hala, gola egin eta markagailuan aurretik jartzeko aukera polita ere izan zuten, baina baloiak langa jo zuen.

Atsedena gainean zela, Trintxerpek, penalti bidez, lehenengo gola egin zuen. Aldagelatik bueltan, Iban Astolaren huts baten ondoren, bigarrena ere egin zuten. Partidua erabakita zegoen. Epaileak amaiera adierazi behar zuenean, Astigarragak 1-2koa egin zuen.



JOSETXO ARANTZABAL

emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA

Sailkapena	Puntuak	JP
1. Zarautz	68	32
2. Hernani	61	32
3. Zestoa	53	32
4. Mondra	49	32
5. Berio	49	32
6. Ordizia	49	32
7. UDA	47	32
8. Trintxerpe	47	32
9. Anaitasuna	44	32
10. Touring	40	32
11. Aloña Mendi	39	32
12. Idiazabal	36	31
13. Aurrera	36	31
14. Hondarribia	35	31
15. Martutene	33	32
16. Pasaia	32	32
17. Mutriku	28	32
18. Urola	21	32

Emaitzak

Zarautz-UDA	1-1
Aloña Mendi-Trintxerpe	1-2
Zestoa-Mondra	0-0
Aurrera-Idiazabal	2-2
Hondarribia-Anaitasuna	2-1
Ordizia-Berio	1-3
Hernani-Touring	2-1
Pasaia-Mutriku	3-1
Martuten-Urola	3-1

Hurrengoak

Trintxerpe-Zarautz	
Mondra-Aloña Mendi	
Idiazabal-Zestoa	
Berio-Aurrera	
Anaitasuna-Ordizia	
Touring-Hondarribia	
Mutriku-Hernani	
Urola-Pasaia	
Martutene-UDA	

BESTELAKOAK

LEHENENGO ERREGIONALA

Bergara-Allerru	2-3
-----------------	-----

BIGARREN ERREGIONALA, IGOERA

BTLS	atsedena
Intxurre-Antzuola	0-2
Elgeta-Mariño	3-1

BIGARREN ERREGIONALA, KOPA

Zestoa-UDA	0-1
------------	-----

EMAKUMEZKOAK, IGOERA

Tolosa-BTLS	0-0
Mondra-Eibartarrak	1-1

EMAKUMEZKOAK, KOPA

Aloña Mendi-Elgoibar	0-3
Arizmendi-UDA	atsedena

OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA

Beti Gazte-Aloña Mendi	1-6
UDA-Anaitasuna	1-1
Mondra-Martutene	7-0

OHOREZKO GAZTEAK, KOPA ETA JAITSIERA

Bergara-Zumaia	1-1
----------------	-----

LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK, IGOERA FASEA

UDA B Arizmendi-Behobia	5-4
-------------------------	-----

LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK, KOPA

Urki-Antzuola	5-3
Zestoa-Bergara	3-E.A.

OHOREZKO KADETEAK, IGOERA

Real Sociedad-UDA Arizmendi	7-1
Tolosa-Bergara	5-4

OHOREZKO KADETEAK, KOPA ETA JAITSIERA

Allerru-Arrasate	3-3
Aloña Mendi-Urola	3-2

LEHENENGO MAILAKO KADETEAK, KOPA

UDA B Arizmendi	atsedena
Bergara B-Zestoa	3-2

KADETE NESKAK, TXAPELDUNEN FASEA

Aloña Mendi B-Zarautz	0-2
Gasteiz Cup-Arizmendi-UDA B	1-0

EUSKADIKO TXAPELKETARAKO IGOERA FASEA > 7. JARDUNALDIA

Igoera lortzeko lehian, garaipen garrantzitsua lortu zuen Bergarak

Hasierako minutuetan, Bergara atzetik joan zen baina, gero, aurre hartu eta irabaztea lortu zuen

Datorren astean, Bergarak Urdanetaren aurka neurtuko ditu indarrak, Labegaraietan

BERGARA

31-27

GAZTELUETA

Bergara > Uribe, Ugalde (5), Sanchez (3), Najera, Najera (1), Garcia (6), Plazaola (6), Lenisoro, Ezenarro (4), Errasti, Zabaleta, Larrañaga (4), Zangitu eta Agirre (2).

Gaztelueta > Lozano, Prado (4), Iburguren (4), Bayano, Anerio, Elizalde, Gonzalez, Santoyo, Mugiloa (4), Quintana (10) eta Gonzalez (5).

Golak > 6-8, 9-9, 12-11, 16-13. Atsedena. 19-15, 21-17, 24-20, 27-24, 29-24 eta 31-27.

neroek eta markagailuan aurretik jartzea lortu zuten (10-9). Handik aurrera, Bergara beti izan zen nagusi markagailuan.

Bergarak bizkor jokatu zuen erasoan; hala, paseak lehenengo ukutuan egin zituzten. Azken jaurtiketetan, baina, huts asko egin zituzten mahoneroek; jaurtiketa oso samurretan, gainera. Atsedenean, markagailuak 16-13 erakusten zuen etxekoen alde.

ERASOAN, HUTS UGARI

Bigarren zatian, etxeko taldeak gogor egin behar izan zuen lan markagailuko errentari eusteko. Erasoan, lasaitu egin ziren, eta, paseak ematerakoan, huts batzuk egin zituzten. 13. minuturako, Gaztelueta 21-19 aurreratu zen markagailuan.

Gero, defentsan egindako lanari esker eta atezainaren geldiketei esker, Bergarak errenta handitzea lortu zuen (25-20). Azkeneko minutuetan, epaileak Bergarako Josu Agirre jokalaria kalteratu zuen.

Kontuak kontu, Bergarak 31-27 irabaztea lortu zuen zapatuan. Orain, sailkapeneko laugarren postuan daude. Datorren astean, Urdanetaren aurka neurtuko dituzte indarrak, berririo, etxean.



JOSU AGIRRE Irudian, Josu Agirre, lurrean, jaurtiketa egin ondoren.

JOSETXO ARANTZABAL

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Bergarak Euskadiko txapelketarako igoera txartela lortzeko lehian buru-belarri jarraitzen du. Zapatuan, igoera faseko 7. jardunaldia jokatu zuten mahoneroek Labegaraietan. Hasierako minutuetan markagailuan atzetik izan ziren arren, minutuak pasa ahala, etxeko taldeak bere lekua hartu zuen kantuan. eta partiduen jabe egin zen.

15. minutuan, 6-8 atzetik zen Bergara; zazpi minututan, baina, 4-1eko partziala egin zuten maho-

ESPAINIAKO TXAPELKETA > GIJONEN JOKATU DA

Aloñako neskak ez dira azken faserako sailkatu

Kadete mailako nesken taldeak egubakoitzeko partidua bakarrik irabazi zuen

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Aloña Mendiko kadete mailako neskek ezin izan dute Espainiako txapelketako azken faserako sailkatu. Izan ere, asteburuan, Gijonen, jokatuak hiru partiduetatik, bakarra irabazi dute.

NEKATUTA

Egubakoitzean, Grupo Astur taldearen aurka lortu zuen Verkol Aloña aste bukaerako garaipen bakarra (19-13). Lehia bikaina jokatu zuten oñatiarrek: defen-

tsan, gogor jokatu zuten, eta erasoan, gol errazak lortu zituzten. Hala, atsedenerako, aurretik ziren markagailuan, eta errentari, amaiera arte eutsi zioten.

Lehenengo partiduko eta bidaiako nekea zapatuko lehian antzeman zituzten. Defentsa motel samarra egin zuten, eta golak egiteko arazoak izan zituzten. Hala, Ane Herrerori, bakarkako defentsa egin zioten. Hala, galdu egin zuten, Galiziako Guardes taldearen aurka (35-21).



KADETEAK Argazkian, taldeko jokalariek, entrenatzaileekin.

GOIENKARIA

Azkenik, atzo ere, Cantabria-ko Camargo taldearen aurka, galdu egin zuten (16-27).

"Pozik gaude egin dugun lanarekin; baina garbi ikusi da ez gaudela ohituta hiru egunetan, hiru

partidu jokatzera", esan ziguten arduradunek.

Aipamen berezia merezi dute Aloñaren partidua ikustera joan diren zaleek. Neke barik animatu zuten hiru partiduetan.

emaitzak

MAILAZ MAILA

GIPUZKOAKO KOPA, LEHEN ETA BIGARREN MAILA NAZIONALA
Ford Mugarri-Urola Lazti 29-18

GIPUZKOAKO KOPA, NESKAK
Ereintza-Verkol Aloña 29-26

EUSKADIKO TXAPELKETARAKO IGOERA FASEA
Bergara-Gaztelueta 31-27

LEHENENGO TERRITORIALA, KOPA
Arrasate-Ormaiztegi 26-25
Pulpo-Aloña Mendi 28-22

GAZTE MUTILAK, KOPA
Pulpo-Bergara 30-30

GAZTE NESKAK, KOPA
Leizaran-Verkol Aloña B 6-25
Elgoibar-Verkol Aloña 23-33

KADETE MUTILAK
Aloña Mendi-Ordizia 31-33

KADETE NESKAK
Arrasate-Arrate 8-52
Verkol Aloña-Zarautz atzeratuta

SENIOR MAILA > LAUKO FINALA

Eskoriatza igoera gabe geratu da, Añorgaren aurka galduta

Finala Añorgak eta Cafes Aitonak jokatu zuten; 2. maila nazionalean, Cafes Aitona taldea izango da

ESKORIATZA

50-53

AÑORGA

Eskoriatza > Baltzategi, Laborda, Gomez, Caceres, Calderon, Alarcia, Usabiaga, Etxeberria, Exposito, Soriano, Etxeberria, Serrano eta Sanchez.

Añorga > Goikoetxea, Uzkudun, Zabala, Gaston, Barriola, Hernandez, Etxaniz, Ormazabal, Carro de Aguas, Noguez eta Ruiz.

Laurdenetako emaitzak > Lehenengo laurdena: 11-8. Bigarren laurdena: 25-23. Hirugarren laurdena: 26-37. Laugarren laurdena: 50-53.

ARANTZAZU EZKIBEL > ESKORIATZA
Eskoriatzak ez du 2. maila nazionalean jokatzeko txartela lortu. Zapatuan jokatuako finalerdian, etxeko taldeak 50-53 galdu zuen Añorgaren aurka; hala, atzo jokatu zen final nagusitik kanpo geratu zen Eskoriatza. Igoera Cafes Aitonak lortu du.

Lauko finaleko lehenengo ezustea Internacional eta Cafes Aitona taldeen arteko lehian izan zen; liga erregularra lehenengo postuan amaitu duen Internacional taldeak 44-60 galdu zuen Cafes Aitona taldearen aurka. Urduritasun handiko norgehiagoka izan zen; azkenean, ahulak indartsua mende hartu zuen.

INTXAURTUETAN, GIRO BIKAINA
Lehenengo finalerdian ondoren, Eskoriatza eta Añorgaren arteko lehia hasi zen. Intxaurtueta kiroldegia lepo bete zen etxeko taldea animatzeko.

Lehia ondo hasi zen etxekoentzat; lehenengo laurdeneko partziala 11-8 izan zen, etxekoen alde. Bigarrenean, markagailua zertxobait berdindu egin zen. 4. minuturako, 14-15 aurreratu zen Añorga. Errebotean, Maite Usabiaga ondo aritu zen. Hala, Usabiagaren lanari esker, Eskoriatzak kontraerasoan ateratzeko aukera ugari izan zuen. Azkenean, atsedenean, 25-23 aurretik ziren etxekoak.



ESKORIATZA Etxeko jokalariek, burumakur, baina zaleen animuak eskertu zituzten.

JOSETXO ARANTZABAL

Hirugarren laurdenean, etxeko taldearen gainbehera heldu zen: 1-14ko partziala izan zuten kontra eskoriatzarrek. Hala, 26-37 bukatu zen hirugarren laurdena. Hor apurtu zen lehia.

NAHI, BAINA EZIN

Azkeneko laurdena 11 tantoko aldearekin hasi zuen Añorgak. Eskoriatzako neskek jaurtiketa erabakigarrietan huts egin zuten.

Donostiarrak, berriz, taula azpian ondo aritu ziren, dena sartuz. Etxekoak saiatu ziren arren, ez zen nahikoa izan egin zuten lana. Azkenean, 50-53 galdu zuten, eta igoera gabe geratu dira eskoriatzarrek.

Igoera lortu ez arren, ezin ahaztu Eskoriatzak egindako denboraldi bikaina. Bestalde, zaleek izandako jarrera ere txalotzekoa izan da.

LAU SARI BANATU ZITUZTEN

Atzo, finala jokatu ondoren, sari banaketa egin zuten Intxaurtueta kiroldegian.

Lau sari banatu zituzten: talde irabazlea -Cafes Aitona-, bigarrena -Añorga-, finaleko jokalarri onena -Cafes Aitona taldeko Berra- eta epaile onena -David Traillero. Eskoriatzak jokatu ez arren, jende asko bildu zen atzo Intxaurtueta finala ikusteko.

LEHENENGO MAILA > IGOERA FASEA

EBA ligara igotzeko partidua jokatu du Mugarri Alkesak

Zaragozako Utebo taldearen aurka jokatu dute, Ocaso Berriotxoaren aurka irabazi ondoren

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Igoera faseko azken partidua irabazita lortu zuen Mugarri Alkesak EBA ligara igotzeko txartela ematen duen partidua jokatzeko. Aipatu partidua ekainaren 2an

jokatuko du, Utebo taldearen aurka. Norgehiagoka erabakigarri hori Zaragozan jokatu dute arrasatearrek.

BERRIOTXOA

Zaragozako partidua jokatu ahal izateko, asko sufritu zuten Berriotxoaren aurka. Hasierako minutuetan aurretik egon arren (2-8), defentsan eta errebotean egindako lanari esker, etxeko taldeak abantaila zuen atsedenean (37-30).

Edozelan ere, hirugarren tarteetan, Mugarri lehia bere alde



OSPAKIZUNA Mugarriko jokalariek, garaipena ospatzen.

XABIER BARBERENA

jarri zuen. Alartziaren, Kintanaren eta Gamarraren artean, hiruko bost jaurtiketa lortu zituzten. Halaber, errebotean, lan bikaina egin zuten Ikerrek eta Iñigok.

Horregatik guztiagatik, arrasatearrek 9-29ko partziala egin zuten tarte hartan, eta partidua erabakita utzi zuten.

CANDYK IGOERA LORTU DU

Zapatuan, Allerruren aurka, 57-52 galdu arren, Candy Bergara taldeak igoera lortu du. Hala, datorren denboraldian, Gipuzkoako lehenengo mailan jokatu dute bergararrek. Halaber, denboraldiko azken partidua Ordiziaren aurka jokatu dute, Labegaraietan.

emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHENENGO MAILA

Berrio Otxoa-MugarriAlkesa 57-74

SENIOR MUTILAK

Aloña Mendi-Ainhoa Taberna 46-58

Allerru-Candy 57-52

SENIOR NESKAK, LAUKO FINALA

Eskoriatza-Añorga 53-50

GAZTE MUTILAK

Mugarri Alkesa-Cafes Aitona 80-65

Aloña-Goierri Verkol 64-76

GAZTE NESKAK

Zarautz-Kortazar-Txirrita 54-55

KADETE MUTILAK

Krafft-Bergara 39-33

Aloña-Easo 51-57

Construcciones Alkesa atsedena

Caldereria Zaher-Ford Mugarri 78-55

KADETE NESKAK

Eskoriatza-Ordizia 52-40

MENDIKO BIZIKLETA > EUSKADIKO SPIUK BTT OPENA

Atzoko garaipenarekin, Ciak Openeko maillota jantzi du

Atzo, 11:30ean, hasi zen elite, 23 urtez azpiko, master 30 eta beteranoen lasterketa; itzuliari bost bira eman zioten gehienek, baina beteranoek, lau bakarrik

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Patxi Cia nafarra nagusitu zen atzo, Arrasaten jokatu zen mendiko bizikleta lasterketan. Arrasateko proba Euskadiko Openeko puntuagarria da; bada, Ciak, lasterketa irabazteaz gain, Euskadiko Openeko maillota ere jantzi zuen Arrasaten. Raul Serrano etorri zen Arrasatera Openeko maillota defendatzera, baina, atzokoan, bigarren postuarekin konformatu behar izan zuen.

JAITSIERA POLITA

Olandixo eta Ikutixo artean presatuko zirkuituan barrena –zortzi kilometrotako zirkuitua– ibili ziren parte-hartzaileak. Helmugan, denak pozik zeuden ibilbidearekin. "Jaitsiera polita izan da, lokatza askokoa", adierazi zuen Patxi Ciak, lasterketa amaieran.



SARITUAK Odriozola, Fraile, Gomez, Cia, Suso, Iñorbe eta Gomez, Arrasateko podiumean.

ARANTZAZU EZKIBEL

Ibilbideari bost itzuli egin zioten eliteek, 23 urtez azpikoek eta master 30 mailakoek; beteranoek, bat gutxiago, eta neskek, kadeteek eta juniorrek, bi. Nesketan, hiru itzuli aurreikusita

egon arren, azkenean bi besterik ez zuten egin. Nesketan azkarrena Olatz Odriozola izan zen.

Atzo, Arrasaten, Euskadiko Openeko maillota ondokoek jantzi zuten: Patxi Cia (elite maila),

Ander Gomez (23 urtez azpikoa), Jose Luis Iñorbe (master 30), Daniel Suso (beteranoak), Olatz Odriozola (emakumezkoak), Omar Fraile (gazte maila) eta Iñigo Gomez (kadete maila).

ESANAK

"Hasierako itzulian, lauko taldetxoak sortu dugu; ondo ikusi dut nire burua ibilbide guztian, eta azkenean arte eutsi diot"

Patxi Cia > Elitetan, txapelduna

"Aurreikusitako baino bira bat gutxiago egin dugu; baina, nire iritziz, ibilbidea ona izan da"

Olatz Odriozola > Lehen neska

sailkapena

MAILAZ MAILA

ELITEAK

1. Patxi Cia
2. Raul Serrano
3. Javier Ruiz de Larrinoa

BETERANOAK

1. Daniel Suso
2. Jose Angel Lopez
3. Jose Luis Moran

EMAKUMEZKOAK

1. Olatz Odriozola
2. Marta Garcia
3. Eneritz Alkorta

23 URTEZ AZPIKOAK

1. Ander Gomez

MASTER 30

1. Jose Luis Iñorbe
2. Miguel Angel Izquierdo
3. Urko Munduate

SARI BANAKETA > MUSAKOLA KIROLDEGIAN EGIN ZUTEN

Aukea sarien aipamen berezia, Juanito Arriarani

Josu Juan Llodio eta Iban Silbar eta Arrasate Eskubaloi elkarteak izan dira beste sarituak

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Atzo egin zuten Aukea Kirol Erakundeak banatzen dituen kirol sarien banaketa ekitaldia. Musakola kiroldegian izan zen, eta bertan, hiru sari banatu zituzten: bakarkako kirol saria, taldekoa, eta aipamen berezia.

SARITUAK

2006ko bakarkako kirol saria Josu Juan Llodio eta Iban Silbarrek jaso zuten. Bi arrasatear horiek Gasherbrum II izeneko espedizioan parte hartu zuten. Halaber, Josu Juan Llodio mendia gaina zapaldu zuen.

Bestalde, kirol elkartearen 2006ko saria Arrasate Eskubaloi elkarteak eskuratu zuen. 2005-06 denboraldia bikaina izan zen arrasatearrendako. Besteak beste, gazte mailako taldeak Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen, eta senior mailako bi taldeek igoera lortu zuten.

Azkenik, 2006ko Aukea sarietarako aipamen berezia Juanito Arriaranek jaso zuen, "Arrasateko kirolaren alde" egindako lanagatik. Juanito Arriaran Mondra taldeko entrenatzailea izan zen, eta, gaur egun, Arrasate Irratiako tertuliakidea da.



SARITUAK Argazkian, Aukea 2006 kirol sariak jaso zituztenak.

JOSETXO ARANTZABAL



HAUTESKUNDEAK 2007

HAUTESKUNDEAK GOITBn

- Saio bereziak, herriz herri, Udal hauteskundeetara alkate izateko aurkezten direnekin.
- Eta Batzar Nagusietarako hautagaiekin.

- Maiatzak 14, astelehena: **Elgeta**.
- Maiatzak 15, martitzena: **Aramaio**.
- Maiatzak 16, eguaztena: Mahai-inguru berezia, **Batzar Nagusien** gainekoa.
- Maiatzak 17, eguena: **Antzuola**.
- Maiatzak 18, egubakoitza: **Eskoriatza**.


- Maiatzak 21, astelehena: **Aretxabaleta**.
- Maiatzak 22, martitzena: Mahai-inguru berezia, **Batzar Nagusien** gainekoa.
- Maiatzak 23, eguaztena: **Oñati**.
- Maiatzak 24, eguena: **Bergara**.
- Maiatzak 25, egubakoitza: **Arrasate**.

Saio guztiak: 21:47ean.

Goitb
Goiena Telebista
Ikustekoa!



> **ARGAZKILARIAK**
Bergaran batzartu ziren Euskadiko hainbat argazkilari, zapatuan > 24



> **ERAKUSKETA**
Aitor Sarasketa eta Manu Muniategi-andikoetxearen lana, ikusgai > 26

> **ANTON AZPIAZU**
Klaxk txokolatzeleen elkarteko presidente Anton Azpiazurekin pasatu dugu aste bukaera > 27



ARRASATE > SAGARDO EGUNA ZIGORROLAN

Txotx! Zigorrolan, Ointxe saskibaloia elkartearekin

Zigorrolako festen barruan, Ointxe saskibaloia elkartearen festa ospatu zuten

Joserra Garai auzokide eta saskibaloia jokalaria ohiak egin zuen txotx ofiziala

KOLDO CARRILLO > ARRASATE

Zigorrolako festak aprobetxatuz, Ointxe saskibaloia elkarteari Sagardo Eguna antolatu zuen zapatuan. Txotx ofiziala 11:30ean egin zuten Zigorrolako San Isidro Baselizaren ondoan. Hain zuzen ere, Joserra Garai auzoko bizilagun eta Arrasateko saskibaloia taldeko jokalaria izandakoa egin zuen txotx, lehenbiziko edalontzia sagardo betetz.

Egun polita izan zen goizean goizetik, eta txarangaren doinuek giroa alaitu zuten kupel eta txosna inguruan. Nahiz eta lehen orduetan jende askorik ez bildu, goizak aurrera egin ahala, eta eguerdira heldu arte, lagun taldeak hurbiltzen hasi ziren sagardoa edan eta zerbait jateko; izan ere, sagardo gunean, txotx egiteaz gain, hainbat pintxo mota ere bazeuden, gura zuen herritarrentzako; pintxo morunoak, txorizoa, gazta eta irasagarra.

Egunean, eta baita asteburu osoan ere, zenbait ekintza antolatu zituen Ointxe saskibaloia elkarteari. Saskibaloia herriari hurbiltzea izan da, antolatzaileen esanetan, festaren asmo nagusia. Horri garrantzia emanda, herriko jendea saskibaloia erakartzeko etengabeko ahaleginan dabilta. Besteak beste, zapatu goizean, azken urteetan ohi-tura bilakatu den 3x3 saskibaloia txapelketa egin zuten Laubiden, gehienak alebin, benjamin eta infantil mailakoak.

Arratsaldean, Zigorrolako gune hartara gerturatu zirenek,



TXOTX! Joserra Garai, lehenengo basoa sagardo betetzen.

JOSETXO ARANTZABAL

trikitilarien musikaz gozatu ahal izan zuten giro epel eta alaietan. Geroago, dantzarien momentua heldu zen, eta emanaldia egin zuten bertaratuei.

GAUA, GAZTEENTZAKO

Gauean, txosna gunean, gazte-giroa izan zen nagusi. Arrasateko 5 Twisters eta Portugaleteko Amorir taldeek rock jaialdia egin zuten; Amorir entzuteko jakin-min handia zegoen, denbora gutxian ezagun egiten ari direlako, eta denetariko bertsoak jotzen dituztelako.

Festa giroa izan zen nagusi Zigorrolan, eta antolatzaileak gustura geratu ziren Sagardo Egunari jendeak emandako harreraz eta alaitasunaz.

Jose Mari Baltzategi > Entrenatzailea

"Saskibaloia herriari eta gazteei hurbiltzea da asmoa"

K.C. > ARRASATE

Jose Mari Baltzategi aspaldidanik da ezaguna Arrasateko saskibaloia inguruan, eta entrenatzaile moduan dabil orain.

Ekintza asko egin dituzue Sagardo Egunean...

Bai. Goizean, txotx ofiziala egon da, eta pintxoak banatu dizkiogu jendeari. Arratsaldean, trikitilariak eta dantzariak izan dira hemen. Gauean, gazteen-

tzako rock jaialdia egon da; Jagoba Domingo gure jokalaria 5 Twisters taldean jotzen du, eta eurek ere parte hartu dute.

Denboraldia amaitzear dela, nola baloratuko zenuke aurtengo urtea?

Balorazio oso ona egingen dugu. Nagusiek EBArak igotzeko partidua jokatu dute; juniorrak Euskal Ligan ibili dira, eta kadeteak, nahiko ondo ere. Pozik gaude.

Umeek ze leku dute elkartean?

Pixkanaka, lan hori planifikatzen joan gara. Orain, piramide bat eraiki dugu, alebinitik hasita, eta, guztira, 11 talde ditugu. Laubiden ere, 3x3an, gazte asko ikusi ditut.

Zein helbururekin zaude hemen?

Saskibaloia hedatzea da gure asmoa, herriari irekitzea.



KOLDO CARRILLO

ARGAZKILARITZA > ZALEEN BATZARRA ETA SARI BANAKETA

Euskal Herriko 32 argazkizale batu ziren Bergaran, argazkizaleen topagunean

Zapatuko kongresua Pol-Pol Mendi Taldearen lokalean egin zuten; ostean, Pertxa elkartearen egindako bazkarirako argazkizale gehiago batu zen, eta Argizaiola sariak banatu zituzten

EDURNE BURGAÑA > BERGARA

Zapatuan, goiz jaiki behar zuten Euskal Herri osoko hainbat argazkizalek. Izan ere, Bergaran, Euskal Argazkilaritza Federazioaren kongresua zegoen deituta, 10:00etan. 50 bat lagun bildu behar baziren ere, goizeko topagunean, 32 argazkizale batu ziren.

BI BERGARAR, ANTOLATZAILE

Kongresuan parte hartutakoaren artean, Iñaki Izquierdo, Euskal Argazkilaritza Federazioko presidenteordea, zegoen. Argazkigintzaz eta zapatuko batzarraz hitz egiteko tartera hartu zuen: "Bergaran egin dugu kongresua, urtero herriz aldatzea gustatzen zaigulako, eta, aurtengoan, bertan tokatu da". Xedeari dagokionez, "Federazioa bera, burokratikoki antolatu ahal izateko egiten den batzarra" dela argitu zuen. "Argazkizale mordo dago Euskal Herrian, eta, gaur bertan, 32 bat bildu gara Bergaran", gehitu zuen Izquierdok.

Bilera Bergaran izanda, Pol-Pol Argazki Taldeko presidentea Juan Antonio Untzurruntzaga ere bertan zegoen. Gainera, Espainiako Konfederazioak



JOSETXO ARANTZABAL

ARTISTA TITULUA Benito Cantero eta Juan Antonio Untzurruntzaga bergararrek Espainiako Konfederazioko Artista titulua jaso zuten.

Artista titulua eman dio aurren Bergarakoari: "Bergaran argazkizale asko dago, eta, gainera, kalitate onekoak. Gazte asko etortzen da elkartera, eta gu joatekotan-edo daude. Baina ez daukagu asmorik. Nik neuk eskuek eta hankek lagundu artean jarraitzeko asmoa daukat argazkiak ataratzeko", azaldu zuen.

Bergarako ekitaldia antolatze lanetan, beste bergarar bat ari-

tu da: Benito Cantero, Pol-Pol Argazki Taldeko koordinatzailea. "Bergaran kongresua antolatzen den bigarren aldia izan da aurtengoa; orain zortzi urte-edo antolatu zen lehen", azaldu zuen.

ARRATSALDEAN, SARIAK

Canterok ere Artista titulua jaso du, eta horrek dakarrena azaldu zuen. Artista titulua jasotzeak bere lana asko ez duela aldatuko



JOSETXO ARANTZABAL

ARGIZAIOLA SARIAK Ezkerretik eskumara, saridunak: Xabier Arribas irundarra, Javier P. Fernandez Ferreras berangarra eta Josu Izarra gasteiztarra.

azaldu zuen: "Ni argazkilaria naiz, eta artista tituluarekin, edo titulurik gabe, berdin jarraituko dut lanean", adierazi zuen argazkizale bergararrak.

Goizean hasitako topagunearen jarraipena bazkaria izan zen. Pertxa elkartearen bazkaldu zuten Bergarara etorritako argazkilariek; ordurako, lagun gehiago ziren. Bazkalostean, gainera, Argizaiola 2007 sariak banatu

zituzten. Aurtengo sarituak honako hauek izan dira: Javier P. Fernandez Ferreras berangarra, lehenengo postuan; Josu Izarra gasteiztarra, bigarren; eta, atzetik Xabier Arribas irundarra.

Erakusketa bat ere zabaldu dute. Pol-Pol Mendi Taldearen lokalean, ikusgai daude, zapatutik Argizaiola lehiaketara aurkeztutako lan onenak. Maiatzaren 20ra arte egongo da zabalik.

ATE IREKIKO JARDUNALDIA

ARRASATEKO GOI ESKOLA POLITEKNIKOAN

Martxoak 15etik ekainak 28rarte ostegunero 15:30etatik 18:30etara, kontsulta pertsonalei erantzungo zaie.

Horretarako, hitzordua eskatu beharko zaio Itziar Gabilondori telefono bidez **943 73 96 30** edo posta elektronikoki bidez: igabilondo@eps.mondragon.edu

Web orria: WWW.eps.mondragon.edu



EGUNA	ORDUA	LEKUA	TITULUEN INGURUKO INFORMAZIOA
maiatzak 17 (osteguna)	18:00	5001	<ul style="list-style-type: none"> Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak. Telekomunikabide eta Informatika Sistemak. Informatika Sistemen Administrazioa. Informatika Aplikazioen Garapena. Proiektu Mekanikoen Garapena. Mekanizazio Bidezko Produkzioa. Industri Ekipoaren Mantenimendua.

'Musika nonahi entzun dadila'

Arkaitz, Hernani.

Zuk horixe nahi duzu, eta gu horrexetarako ari gara lanean. **Kutxa**n ongi asko dakigulako gaur esaten diguzuna entzuten, bihar zure nahiak gauzaturik ikusi ahal izan ditzazun. Zuri esker ari baita, egunero, gorantz egiten **kutxaren** Gizarte-Ekintza.

zer nahi duzu bihar?

kutxaren 2007ko Gizarte Ekintza

76 milioi euro
1.200.000 onuradun
4.300 jarduera Gipuzkoan

Osasuna

Gizarte-Laguntza

Elkartasuna

Hezkuntza

Ikerkuntza eta Enplegua

Kultura 5 milioi, kultura jende guztiarengana hurbiltzeko

Aisialdia

Ingurumena



zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 **kutxa**

ARTEA > PINTURA ERAKUSKETAK

Aitor Sarasketaren eta Manu Muniategiandikoetxearen erakusketa

Sarasketa eibartarraren 10 bat koadro daude ikusgai Aroztegi aretoan, maiatzaren 29ra arte

EDURNE BURGAÑA > BERGARA

Joan den egubakoitzean, erakusketa berri bat inauguratu zuten Bergarako Aroztegi aretoan: Aitor Sarasketa eibartarraren lanak biltzen dituen *Etxakixnat*.

"Tamaina handiko koadroak daude erakusketan; 300x195 eta 195x130 tamainako lanak, adibidez. Lantzen dudana gaia pintura bera da, bere prozesua", zehaztu du Sarasketak. Maiatzaren 29ra arte bisitatu ahal da erakusketa.



TAMAINA HANDIA Aroztegi aretoan ikusgai dauden koadroak tamaina handikoak dira.

JOSETXO ARANTZABAL

LIBURUA ERE BAI

Margolan horiez gain, Manu Muniategiandikoetxea pintore bergararraren lanak ere egongo dira ikusgai; hain justu ere, *Instrucciones para naufragos*. Marrazki erotikoz eta Harkaitz Canoren testuekin egindako tirada mugatuko liburua da Aroztegi aretoan ikus daiteneena.

Jesus Mari Lazkanoren 'Jardines italianos' erakusketa, Erroman

Jesus Mari Lazkano bergararrak egubakoitzean inauguratuko du erakusketa Erromako II Politiko galerian. Artista 90eko hamarkadan ere Italian egon zen, eta orduan margotutako lorategietara itzuli da orain, baina beste ikuspuntu batetik margotu ditu.

Horrez gain, Italian dagoela aprobetxatuta, erakusketa bat zabaltzarekin batera, hitzaldiak ere egingo ditu Veneziako Arte Ederren Fakultatean.

Urdaibai inguruan dauka estudioa Lazkanok; hurrengo asmoa bertako egunsentia margotzea da.

AFARIA

Erromeriako afarirako txartelak, salgai

Maiatzeko erromerietako azkena izango da oraingo barrikukoa

E.B. > BERGARA

Maiatzeko erromeria denboraldia ia amaitu da. Munibe plazan izaten dira jaialdiak, egubakoitzetan, 19:00etatik aurrera, baina, eguraldi txarra eginez gero, Udaletxeko arkupetan egiten dira.

Egubakoitzean izango da azkeneko erromeria, 19:30ean, eta berau izango da hileko handiena. Herriko Maitane, Nekane eta Olatz trikitilariak eta Moises Azpiazu eta Gazte Alai taldeko dantzariak parte hartuko dute bertan. Ostean, 20:30ean, afaria egingo dute Munibe plazan. Joan nahi duenak Kortazar tabernan eros dezake txartela, 8 euroren truke. Amaitzeko, 22:00etan, Abaraka dantza elkartearen ikuskitzuna egingo da, eta 22:30ean, erromeria, Izer, Alabier eta Lutxurdio trikitilariekin.

HERRIKOLOREAK

BOZKATU EAE ANV

1. AGURNE BARRUSO
2. ROBERTO MARTINEZ
3. MAITE GURIDI
4. AITOR GOITI
5. ENARA MINGUEZ
6. MIKEL ELKOROBEREZIBAR
7. AMAGOIA ARIZTEGI
8. MARKEL AZKARGORTA
9. IHINTZA ARREGI
10. BIBI ANDUEZA
11. IONE SALEGI
12. LUIS M^a ALBERDI
13. NEREA GABILONDO
14. GOTZON IBARRA
15. ANE JAUREGI
16. JUAN LUIS BARRUTIA
17. AGURTZANE DIAZ
18. JOXE LAZKANO
19. LUPE OLABARRIA
20. AINARA ZUBIA

ASTEBURUA...

Anton Azpiazurekin



JOSETXO ARANTZABAL

"Txokolatea nondik datorren eta Oñatira nondik heldu zen ikertzen dut"

Zahorren lan egiten du Anton Azpiazu; lane-
tik irten eta txokolate-
arekin jarraitzen du,
baina ikertzen

Txokolateaz gain,
irakurtzea, ibiltzea eta
musika ditu gustuko;
seme-alabek bandan
jotzen dute

EDURNE BURGAÑA > OÑATI

Txokolatea: garai batean bekatu ere izandako elikagaia da Anton Azpiazuren bizitzako alde garrantzitsu bat. Batetik, lanean, Zahor txokolate enpresan egiten du-eta lan; eta, bestetik hobya, txokolatearen historia aztertzen dabilako hamabi urtetan. Aste bukaerak ere gustura ematen ditu zeregin horretan.

Hori bakarrik ez. Oñatin, Klaxk txokolatezaleen elkarte ere badago, eta Azpiazu da hor-ko presidentea. Ikerketa lanak egiten ditu oñatiarrak lane-
tik irte-
ndakoa: "Txokolatea nondik datorren eta Oñatira nondik heldu zen ikertzen nabil", dio.

Oñati txokolategileen herria izanda, elikagaiaren nondik nora-koak ez zeudela zehaztuta, eta ikertzea erabaki zuen Anton Azpiazu: "Orain dela hamabi urte sortu zitzaidan grina. Txokolatearen gainean ezer ere ez dago idatzita. Ikertzaile batzuekin elkartu, eta haien bidez eza-gutu nuen artxiboa".

Txokolatearen "bizioa" daukala dio Azpiazu: "Afrodisia-koa da eta dependentzia sortzen du", azaltzen digu.

Astegunetan, lanetik irten eta paseoan ematen du ordu eta erdi inguru. Izan ere, "Oñatin txoko eder-ederrak daude ibiltzeko". Handik bueltatu eta liburuak irakurtzea ere gustuko du Azpiazu. "Ez bakarrik txokolatearen gainekoak. Antonio Galaren liburu bat irakurtzen nabil orain, eta garai bateko erregeen gainean berba egiten du. Txokolatea ez da protagonista, baina

zerbait azaltzen da hor ere", azaldu du oñatiarrak.

Zapatu goizak irakurtzen eta ikertzen ematen ditu: "Txokolatearen gaineko azokak eta liburuak non egin eta ateratzen diren jakitea nahi izaten dut. Aspertzen ez nauen gaia da txokolatea".

Arratsaldeetan, derrigorrez-ko hitzordua edukitzen du familia osoak amaren etxean: "18:30 aldera batzen gara guztiok ama-

renean. Txokolatea aitzaki, guztiok elkartzen gara, bizitzaz eta txokolateaz berba egiteko".

TXOKOLATEA BAKARRIK EZ

Txokolateaz askoz gehiago daki orain Azpiazu, ikertzen hasi zenean baino: "Garai batean txokolatea egiteko erabiltzen zen errota daukat etxeko garajean. Txokolatea 1600. urtean Oñatin bazegoela ere badakit, eta historian zehar txokolatea egiteko erabili diren era ezberdinen berri ere badaukat". Horrekin guztiarekin, txokolatearen gaineko museo egitea da oñatiarraren asmoa, "baina proiektua oraindik geldirik dago", adierazi du.

Txokolateaz gain, baditu beste afizio batzuk ere: "Seme-alabek herriko bandan jotzen dute, eta hilean behin, domeketan, egiten duten kontzertura joaten naiz".

Domekak emaztearentzako eta futbolarentzako izaten dira Anton Azpiazuren asteburuetan: "Domeka goizak emaztearekin ematen ditut, eta arratsaldeetan, Aloñak Azkoagainen jokatzen duenean, partiduetara joatea gustatzen zait. Anoetara ez naiz joaten, baina etxekoak ikustera, bai".

TXOKOLATEA AUKERATZEN

Txokolate zuria, beltza... mota ezberdinetakoak daude, zein gurago?

Anton Azpiazu txokolatearekin egiten du lan. Aste barruan, Zahor txokolate enpresan dihardu, eta, lane-
tik kanpo, txokolatearen gainean informazioa biltzen dabil. Baina jatea ere gustuko du. Erostera joan eta txokolate mota asko aurki daitezke: zuria, beltza, almendraduna... eta bakoitzak bere gustukoa aukeratu dauka.

Azpiazu ere ez dauka dudarik: "Txokolatea, zenbat eta beltzago, neuk gurago. Gehien gustatzen zaidana %80 kakaoz eginda dagoena da", zehaztu du txokolatezaleak.

Txokolatea jan eta dastatzearen arteko ezberdintasuna ere egiten du Klaxk txokolatezaleen elkarteko presidentek: "Garai batean, asko ez zegoen orain eramateko, eta txokolatea ontzaka jaten zen. Gaur egun, ostera, ume batek tableta oso bat jan dezake. Lehen, txokolatea dastatu egiten zen; orain, denetarik daukagu, eta ez dakigu gauzak baloratzen".

gazte zerbitzuak

BEKAK

> **Praktikak.** Guggenheim Bilbao Museoa. Museoan praktikak egiteko aukera, diplomatura, lizentziatura edo graduondoko ikasleentzat, edo goi mailako heziketa tituluduntentzat. Epea: maiatzak 20.

> **Japonia.** Japoniako Hezkuntza Ministerioak ikasketak zabaltzeko 2008ko beken programa atera du. Epea: maiatzak 31.

> **Praktikak.** Salamancako Unibertsitateko Fundazio Orokorra. Argo Proiektua: enpresetan praktikak egiteko bekak unibertsitateko tituluduntentzat. Epea: maiatzak 31.

LANA

> **Begiraleak.** Aretxabaletako Udala. Uztailean udakelu irekietan lan egiteko begiraleak. Epea: maiatzaren 17a.

> **Hezitzailea.** Txatxilipurdi Elkarte. Haurren sailerako arduraduna. Gizarte zientzian diplomatura eta euskara maila altua. Kurrikuluma bidali haurrak@txatxilipurdi.com helbidera.

> **Euskara teknikaria.** Mankomunitatea. Aldi baterako. Lan jardun erdia. Diplomatura. Epea: maiatzaren 18a.

IKASTAROAK

> **Gaur egungo dantzak.** Arrasateko Udaleren Gazteria Saila. Astelehenean eta eguztentean, 6etatik 7:30 arte. Maiatzaren 14tik ekainaren 13ra.

> **Euskal dantzak.** Arrasateko Udaleren Gazteria Saila. Egubakoitzetan, arratsaldeko 7etatik 8:30 arte. Maiatzaren 18tik ekainaren 15era.

> **Arte.** Debako Arte Eskola. Udako Ikastaroak uztailean eta abuztuan: grabatuak, serigrafia, pintura, esmalteak, eskultura... Epea: ekainaren 22a.

> **Alpinismoa.** Gipuzkoako Goi Mendiko Eskola. Glaziareko Alpinismo Ikastaroa. Maiatzaren 26 eta 27an eta ekainaren 2 eta 3an. Hastapen eta trebakuntza mailak.

EKINTZAK

> **Ekintzaileak.** Saiolan. Auzolanderiak ekintzaileentzat, uztailean 16tik 29ra. Epea: ekainak 15.



ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulgoa@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEAK:
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzzerbitzua@euskalnet.net

OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

1/ ETXEBIZITZAK
101. SALDU

Antzuola. Adosatua. Estreinatze-ko. 607 79 00 37.

Aretxabaleta. Herri erdian. 72 m². Garajearekin. Prezio interesgarria. 659 64 67 38.

Arrasate. Arimazubini. Egoera onean dago. Bi logela, egongela, komuna, sukaldia eta ganbara. Kanpoaldera begira dago. 657 77 81 87.

Arrasate. Urbe auzoan. Lau logela, egongela, sukaldia eta bi komun. Garajea aukeran. 625 28 72 06.

Arrasate. San Andresen. 57 m². Guztiz berritua. Bi logela, egongela, bainugela eta sukaldia. Kanpoaldera begira. Igoailua eta sotoarekin. 620 15 12 12.

Arrasate. San Josepen. 58 m². Bi logela, egongela, bainugela, sukaldia, trastelekua, berogailua, igogailua, guztiz berritua. Deitu 19:00etatik aurrera, mesedez. 667 53 70 00.

Arrasate. Zigorrolan. Hiru logela, egongela, bainua, sukaldia, trastelekua eta hiruki balkoi. Oso eguzkitsua. 652 73 22 83.

Arrasate. Zerrajeran. 2 logela, 2 bainu, egongela, sukaldia, terraza eta garajea. Errekaruntz begira. 656 77 94 32.

Arrasaten. Grupo San Juanen. 60 metro koadro erabilgarri. Azken solairua, igogailuarekin, ganbararekin eta sotoarekin. Berogailu indibiduala. Bizitzera sartzeko gertu. 606 25 92 80.

Bergara. Apartamentua salgai Zubietan. Eguzkitsua. Telefonoa: 656 78 06 95.

Bergara. Etxebizitza guztiz berrieta eta jantzia salgai. Zabalotegi kalean. 615 79 41 02.

Bergara. Labegaraietan. Berritua eta altzariekin. 635 71 04 55 telefonora deitu.

Bergara. Simon Arrietan etxebizitza salgai. 80 metro koadro. Dena kanpo aldera. Egoera onean. 652 76 86 68.

Bergara. Zabalotegin. 50 m² ditu eta 14 m²ko trastelekua. Erabat berritua. 635 72 67 11.

Biarritz. 90 m², 3 logela, komuna, bainua, dutxa, sukaldia, bi balkoi eta egongela handia. Hondartzatik 10 minutura oinez. 646 69 47 99.

Donostia. Atiko polita salgai. Hondartzatik oso gertu. Oso argitsua (bi leiho eta bi velux). Gela bat. Kafekantaria eta igogailua. 630 22 67 57.

Elgeta. Etxebizitza salgai, bigarren solairuan. Igoailua, 3 gela, sukaldia, komuna, egongela eta ganbara. 138.232 euro. Telefonoa: 645 71 76 25.

Eskoriatza. Duplex berria salgai. Erdialdean. (100m²). Hiru logela, egongela, sukaldia eta bi komun. Garajea eta trastelekua. 655 70 46 90.

Eskoriatzan. Etxebizitza salgai, 3 gela, 2 bainugela, egongela, sukaldia, garajea eta trastelekua. 686 92 55 71.

Jaca. 2007-ko abenduan jasota; urbanizazio pribatua, igerile-

IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 01 sailkatuak@goiena.com
<http://www.goiena.net/sailkatuak>

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 18 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENKO GOIENKARIAN BIETAN, ARGITARATUZ GERO 25 EURO (+BEZ).

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

DEBAGOIENA

Langileak behar dira Debagoieneko lantegi baterako 943 79 87 77

Salou. Apartamentua ematen dut errentan Jaime I.a pasealekuan, Novely eraikinean. Erabat jantzita eta aire girotuarekin. 629 98 98 99.

Torreveja. Hondartzatik 100 metrora. Bi logela eta egongela-jangela ditu. 943 77 03 85.

Gasteiz. Gorbeia kalean logela bat errentan ematen da. 300 euro. Deitu telefono honetara: 652 72 18 87.

Ofiati. Apartamentua San Lorentzon. Saloi-sukaldia eta bi logela. Eguzkitsua, terraza handiarekin. Garajea aukeran. Prezio adostekoa. 656 74 80 47.

Ofiati. San Lorenzo auzoan. Hiru gela, bi bainu eta ganbara. Garajea aukeran. Prezio adostekoa. 656 74 80 47.

Ofiati. Ugarkalden lehen esku-etxebizitza salgai: 100 m². Oso eguzkitsua. Sukaldia guztiz jantzita eta etxea norberaren gustura egiteko aukera. 649 44 60 92.

Torreveja. Etxea salgai. 67 m², bi logela. 110.000 euro. Telefonoa: 671 60 82 81.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Etxe berria errentan herri erdian. 943 77 13 02.

Arrasate. Ikasleentzako etxebizitza errentan ematen da. Hiru logela ditu. 699 97 84 23.

Arrasateko. Leintzibar kalean berriztatuko pisua errentan ematen da. 943 79 55 26.

Benidorm. 2 logela, 2 komun, aire egokitu, garaje eta igerilekua. Hondartzatik gertu. Telefonoa: 666 67 06 94.

Benidorm. Levante hondartzan, igerileku eta garajearekin. Hondartzatik 5 minutura. 945 21 34 70 edo 665 72 60 76.

Cadiz. Apartamentua Conilen, Bateles hondartzaren ondoan. 680 44 26 68.

Eskoriatza. Apartamentua errentan ematen da. Altzariekin. 658 70 91 54.

Hendaia. Uztailean. Toki lasaian dago, terraza eta parkingarekin. 600 euro. 677 65 39 34.

Hendaia. Urbanizazio batean dagoen apartamentu bat errentan ematen da. Urbanizazioak igerilekua dauka eta apartamentua egokitu berria da. Parking partikularra. Lau lagunendako edo familia batentzako egokia. Inaxio. 670 41 08 58.

Jaca. Etxe bat errentan ematen da maiatzetik azarora. Urbanizazioa, tenis pista eta igerilekua dauka. 665 73 95 65.

La Barrosa-Chiclana (Cadiz). Apartamentua urbanizazio berritan. Leku zoragarria. La Barrosa hondartzatik oso gertu. 616 14 65 54 edo 678 78 39 10 telefonora deitu, mesedez.

Nojan. apartamentu bat errentan ematen da, udan. Garajea eta igerilekuarekin, bi logela. Deitu honako zenbakira, mesedez: 635 75 35 29.

104. ERRENTAN HARTU

Debagoiena. Bi neska, etxebizitza alokairuan hartzeko gertu. 636 05 36 18.

Debagoiena. Bikote batek errentan hartzeko etxebizitza behar du ahalik eta lasterren. 680 53 74 22.

Debagoiena. Bikote batek etxebizitza errentan hartuko luke. 606 92 59 33.

Debagoiena. Etxebizitza hartuko nuke errentan Debagoieneko herri baten. 638 43 80 27.

Eskoriatza. 2007-2008 ikasturterako lau logelako etxebizitza hartuko nuke errentan, berogailuarekin. Deitu 12:00etatik aurrera. 619 16 12 55.

Eskoriatza. Lau neska, pisua errentan hartuko lukete 2007/2008 ikasturterako. Telefonoa: 628 81 34 27.

Arrasate. Arrasateko gazte batek errentan hartuko luke. 639 96 30 98.

Oñati. Bikote batek etxebizitza hartuko luke errentan. Telefonoa: 671 44 81 59.

105. ETXEA OSATU

Debagoiena. Bi neska gertu daude etxebizitza osatzeko. Deitu telefono honetara: 616 05 97 92.

Donostian. logela alokatuko nuke, etxea konpartituz. Telefonoa: 652 74 20 82.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Garaje itxia alokagai Uarkapen. Deitu telefono honetara: 605 77 59 03.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Oñati. Lokala salgai San Lorentzon. Deitu 605 77 15 13 edo 605 71 84 94 zenbakietara.

302. EROSI

Bergara. Lokala erosi/alokatu-ko genduke. Ibargeialdea. Deitu 636 72 32 72 edo 696 16 05 54 telefono zenbakietara.

304. ERRENTAN HARTU

Bergara. Lokal bat hartuko nuke errentan. Jairo. Deitu telefono honetara: 660 43 71 94.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Elgeta. Pertsona euskalduna behar da arratsaldez (18:30-20:30) hamar hilabete umea zaintzeko. Deitu 633 83 85 32 zenbakira.

402. ESKAERAK

Adineko pertsonak zaintzeko emakumea gertu. Deitu 662 26 72 65 zenbakira.

Debagoiena. Mutil gazte bat gertu edozein lanerako. Deitu 609 98 02 52 zenbakira.

Debagoiena. Asteburuetan edozein lan egiteko gertu dago mutil bat. Marcos. Deitu telefono honetara: 696 38 10 07.

Debagoiena. Garbiketa lanak egingo nituzte orduka zein jardun osoz. Deitu telefono honetara: 618 93 59 29.

Debagoiena. Nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke. Deitu 943 79 76 88 edo 666 21 88 95 zenbakietara.

Debagoiena. Neska bat gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko edo garbiketarako egiteko. Deitu telefono honetara: 646 75 08 07.

Debagoiena. Neska bat gertu pertsona nagusiak zaintzeko, sukaldari laguntzaile edo zerbizari moduan lan egiteko edo garbiketarako egiteko. Deitu telefonoa: 663 46 93 60.

Debagoiena. Pertsona nagusiak gauden zaintzeko gertu dago neska bat. Deitu 615 79 41 02 zenbakira.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Arrasate. DBHko ikasle batek eskola partikularrak jasoko lituzke, ahal bezain laster. Telefonoa: 943 79 89 96.

Bergara. First titulua duen irakaslea behar dut asteen hiru orduz eskolak eman diezazkidan. 943 03 73 39.

Web orrialdeen programazio-klaseak jasoko nituzke. Linux-en oinarritutako oinarriko maila. Olaia. 649 17 48 27.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Alfa Romeo 156 SW. Gasolinazkoa. 2004koa. 48.000 km. 645 00 99 35.

Autokarabana salgai Perfiltua. 130 ZP. 2006ko otsailekoa. 23.000 km. 667 41 20 33.

Golf GTI III autoa salgai. 2.800 euro. Deitu telefono honetara: 666 44 10 09.

Megane Luxe Dinamike salgai, oso egoera onean. 1.9 Dti, 120 ZP. 2005koa, 40.000 kilometro. 13.300 euro. Deitu telefono honetara: 652 75 54 46.

Monobolumena salgai. Seat Alhambra Sport. 130 ZP. Egoera onean, 43.000 km eta 2004koa. Deitu telefono honetara: 653 71 04 56.

Peugeot Eliseo eskuterria salgai. 45cc. Egoera onean. Merke: 400 euro. Deitu telefono honetara: 657 73 93 82.

Suzuki GS 500E motorra salgai. 25.000 km eta egoera oso ona. 1.800 euro. Deitu telefono honetara: 669 97 93 48.

Yamaha WR250 motorra salgai. 2001koa. 3.000 km eta egoera oso onean. 3.000 euro. 635 71 67 06.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Txakurkumeak salgai, Seterrak. Telefonoa: 943 78 70 64 edo 652 71 61 99.

704. BESTELAKOAK

Txakurra. Golden Retriever txakurra galdu da Garagartzan. "Oso" du izena, 7 hilabete ditu eta tamaina ertaina, ile horiduna. Eskertuko da. 943 79 61 14.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Autorako DVDa eta pantaila salgai. 656 70 23 12.

Bizikleta salgai. Moser koadroa, aluminiozkoa, 55-56 neurrikoa, Shimano Ultegrekin. 500 euro. 943 78 07 10.

Emaztegi soinekoa saltzen da, estreinatu barik. Neurria: 40. Zuria berdearekin. Modernoa. 800 euro. Deitu telefono honetara: 652 75 54 46.

Gatzagan aintzinako altzariak saltzen dira. Berriztatzeko daude. Merkeak. Deitu telefono honetara: 615 74 13 47.

MP3 duen irratia salgai, automobilerrako. JVC markakoa. 635 25 54 44.

Pesak egiteko (100 kg-ra arte) makina saltzen dut. 200 euro. 650 58 43 00.

Saxofoia. Yamaha markako saxofoia saltzen dut. Ia berriberria da. 943 79 76 69.

Scooter Kymco motorra salgai. Bet&Win. 150 cc. 8.700 km. 636 85 74 43.

Snowboard taula salgai. Forum markakoa eta Recon modelo. Freestyle fijazioak. 1 metro eta 45 cm-koak. 656 73 34 24.

Trialeko bizikleta. Monty 221 Ti. 2004koa. Egoera onean. Lehen 1.300 euro, orain 550 euro. Markel. Deitu 943 79 41 88 telefono zenbakira.

Txakurrentzako erremolkeak saltzen da. Oso egoera onean. Jon. Deitu 618 72 68 34 telefono zenbakira.

Ume-kotxea. Bikiendako ume-kotxe tolesgarria, McLaren Twin Traveller. Udarako, aulkiondako bi estalki eta negurako bina Red Castle forru polar eta zaku, eguzkitakoarekin. Deitu telefono honetara: 676 83 25 62.

Windsurf ekipamendua. Bic Rumba taula + 99 litroko Bic Velco taula opari + estrak. Dena 275 euro. Deitu eta ikusi. Mikel. Deitu 677 78 31 56 zenbakira.

Hirusta bilduma. Lau hostoduna, salgai. Debaibarrean batuak. 3 eurotan ale bana eta beste-ko sortetan. Pertsonalizatzeko aukera badago. L.A. Deitu 653 70 84 09 telefono zenbakira.

802. EROSI

Umea eramateko mendiko motxila eta bizikletako aulkia erosi nahi ditugu. Deitu telefono honetara: 696 40 82 19.

806. GALDU

Bergara. Urre zuridun eta urre horidun eskumuturreko galdu nuen apirilaren 29an. Toki Eder, Arteka eta plaza inguruan ibili nintzen. Deitu telefono honetara: 686 98 20 96.

808. BESTELAKOAK

Arrasate. Lursail eguzkitsua errentan ematen da. Gernika pasealekuko zubitik gertu. 22:00etatik 23:00etara deitu, mesedez. 656 75 52 28.

Maiatzak 14a: 129. zozketa **ASTELEHENKO GOIENKARIA Harpidedunen txokoa**

Zorionak irabazleoi!
Gaur, maiatzak 14, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tar-tean bazaude, zorionak!
Astehenekoko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

Zeuzan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetakobat!

Saridunak **130. zozketako saria** **Harpidedun ez bazara...**

Realeko txaleko bi.
- Arantxa Akizu Gaztañaga (Aretxabaleta)
- Jesus Odriozola Igartua (Antzuola)

Sei sarrera Elgetako ESPALOIAN maiatzaren 26an izango den Mathilde maitatzeko moduak musika ikuskizunerako.
Saridun bakoitzari bi emango zaizkio.

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
09:00etatik 18:00etara.

Harpidetza kuota:
35 euro
2007 bukaera arte.

Goienkaria
astehenekoko aste bukaera osoa

astea GOITBn

Astelehena, 14



> **Hauteskundeei buruzko saio berezia**
21:47

Elgetako hautagai politikoeke hirigintza, ingurumena, kultura, euskara, gizarte ongizatea eta kirola izango dituzte mintzagai.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Hauteskundeak 07. Gatzaga.
- 14:15 Ikusten.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:15 Ilunpean.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Klika.
- 16:15 Erreportajea.
- 16:45 Albisteak.
- 17:15 Calimero.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ur eta lur.
- 18:45 Albisteak.
- 19:15 Kirolari.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Harmaillatik.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Hauteskundeak 07. Elgeta.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Didjeridu.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:30 Ikusmira.
- 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 15




> **Hauteskundeei buruzko saio berezia**
21:47

Minutu eta erdiko tartean, Aramaioko hautagaiak hauteskundeei zein gizarte-ari dagozkien gaiez arituko dira berbetan gaurkoan.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Boboboak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Hauteskundeak 07. Aramaio.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:15 Eltze beroa.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Harmaillatik.
- 16:15 Ikusmira.
- 16:45 Albisteak.
- 17:15 Boboboak.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ilunpean.
- 18:15 Zehaztu gabeko saioa.
- 18:45 Albisteak.
- 19:15 Harmaillatik.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Boboboak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Hauteskundeak 07. Aramaio.
- 22:15 Berbaire.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Ikusten.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:30 Musikantoi.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 16



> **Batzar Nagusietarako hautagaiak**
21:47

Rebeka Ubera (EB-Aralar), Ainhoa Galdos (EAJ) eta Iñaki Galdos (EA) eta ANVko ordezkari bat izango dira gaurko mahai inguruan.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Hauteskundeak 07. Elgeta.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:15 Berbaire.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Didjeridu.
- 16:15 Eltze beroa.
- 16:45 Albisteak.
- 17:15 Calimero.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Harmaillatik.
- 18:15 Zu kazetari.
- 18:45 Albisteak.
- 19:15 Teknopolis.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Zu kazetari.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Hauteskundeak 07. Mahai inguru.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Berbaire.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:30 Ur eta lur.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 17



> **Hauteskundeei buruzko saio berezia**
21:47

Gaurkoan, hauteskundeen aurrean, Antzuolako hautagaiak zer asmo dituzten jakingo dugu GOITBn eskainiko duen saioan.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Boboboak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Hauteskundeak 07. Mahai inguru.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:15 Eltze beroa.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Telesai.
- 16:15 Ikusmira.
- 16:45 Albisteak.
- 17:15 Boboboak.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Eltze beroa.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albisteak.
- 19:15 Klika.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Boboboak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Berbaire.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Hauteskundeak 07. Antzuola.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Didjeridu.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:30 Musikantoi.
- 00:15 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 18



> **Hauteskundeei buruzko saio berezia**
21:47

Eskoriatzako hautagai politikoeke dituzten helburu eta kezkek izango ditugu entzungai, hauteskundeei eskainitako saio berezi honetan.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Hauteskundeak 07. Antzuola.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:15 Berbaire.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Didjeridu.
- 16:15 Eltze beroa.
- 16:45 Albisteak.
- 17:15 Calimero.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Hauteskundeak 07. Mahai inguru.
- 18:45 Albisteak.
- 19:15 Erreportajea.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Teknopolis.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Hauteskundeak 07. Eskoriatza.
- 22:15 Ilunpean.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Berbaire.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:30 Kirolari.
- 00:15 Emisio amaiera.

arrasate irratia

FM 107.7

> **Kirol kazetariekin berbetan**
10:30

Haritz Gallastegi eta Julen Iriondo kirol kazetariak futboleko lehen mailako gorabeherak eta aste bukaerak eman duena komentatuko dituzte. Gero, Arantzazu Ezkibel *Harmailatik* saioa aurkezlea igoko da autobusera.

Astelehenetik egubakoitzera

- 10:00-12:00 Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
- Elkarrizketak
Meteoreologiaren geltokia
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
- 12:05 Izarren ordua: abesti ezagunak
- 13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
- 15:15 Berbaire.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Didjeridu.
- 16:15 Eltze beroa
- 16:45 Albisteak.
- 17:15 Calimero.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Hauteskundeak 07. Mahai inguru.
- 18:45 Albisteak.
- 19:15 Erreportajea.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Teknopolis.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Hauteskundeak 07. Eskoriatza.
- 22:15 Ilunpean.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Berbaire.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:30 Kirolari.
- 00:15 Emisio amaiera.


Zapatua

- 10:00 Asteko gainbegiratu.
- Aste osoan barrena egindako elkarrizketen eta gainontzeko edukien laburpena

Domeka

- 10:00 Asteko gainbegiratu

gertutik



Felix Linares
Aurkezlea

"Promozioa egin nahi denez, kritikoa izatea ez dago modan"

AMAIA ZALDUA > BERGARA

Felix Linares 1966an hasi zen lanean Radio Popular irratian. TVEn ere aritu zen gero, baina Radio Euskadira joan zen 84an, eta 92tik aurrera, ETBn ere hasi zen. Egund, *Pompas de papel* irratia aurkezten du, eta *La noche de...* telebista saioa.

Zer ikasi zenuen?

Bide arrunt bat egiteko asmoa nuen: zerbait ikasi eta lan monotono batean aspertzea. 16 urteekin, ordea, irakasle batek nire ahotsak irratirako balio zuela esan zidan, eta jende egokia aurkeztu zidan. Ni autodidakta naiz, hau da, irakasletzat ezjakin bat izan dut.

Irratitik telebistara salto egitean, zer moduz?

Mota guztietako pertsonak eza gutzen ninduten kalean, baina ez dut arazorik izan, jendeak errespetatzen badakielako.

Kazetaria ala kritikoa zara?

Biak. Azken baten, kazetaria naiz eta, horregatik, zenbait arlotan egiten dut lan, batez ere, kultur arloetan. Baina ikusle ona naizela konturatu naiz, eta ikusle ona kritikoa ona da. Nahiz eta, egun, kritikoa izatea ez dagoen modan, promoziora bideratutako programak besterik ez dardelako, nik uste dut beharrezkoa dela filmak, liburuak, artea eta bizitza bera ikuspuntu kritiko batetik hautematea.

Zer diozu Aupa, Etxebeste, Kutsidazu bidea, Ixabel eta Eutsi filmei buruz?

Beharretik bertutea lortu duten filmak dira. Euskal Herrian, ez dugu industria zinematografikorik, eta film horiek oso baldintzatuta egin dira: jendeari gustatzeko moduan, umorea eta drama nahastu dira, eta diru gutxirekin. Baldintza horiek kontuan izanda, film heroikoak dira hiru horiek. Orain soilik falta da, urtero bat aurkeztu beharrean, aste-oro aurkeztu ahal izatea. Bueno, hilean behin.

Etorkizuneko asmoak?

La noche de... eta *Pompas de papel* saioetan jarraitzea, eta nire gustuko irratsaio bat aurkeztea. Argi dago lanean jarraituko dudala.

asteko hitzorduak

Erakusketa



OÑATI

> **Ludovico Rodriguezen pintura erakusketa izango da astebetetz**

Oraingo egunean hasi eta datorren egubakoitzera arte, maiatzak 25, Ludovico Rodriguezen pintura erakusketa izango da ikusgai Oñatiko kultura etxeko erakusketa aretoan. Ordutegia 18:30etik 20:30 bitartekoa izango da.

Antzerkia



ARRASATE

> **Oraingo egunean, baserri munduarekin lotutako saioa izango da**

Baserri munduaren inguruan izango den saioan, antzerki emanaldia eta foruma egingo dira. Saioak berak *Baserritik baserrira* izena du, eta Ebel elkarteak antolatuko du. Hori guztia Kulturateko areto nagusian hasiko da, 19:00etan.

Kontzertua



ESKORIATZA

> **Egubakoitzean, kontzertua eskainiko du soka laukoteak Eskoriatzan**

Ibarraundi Museoa antolatuta, soka laukotea entzuteko aukera izango da orain egubakoitzean. Emanaldia Ibarraundi Museoa bertan izango da, eta 22:30ean hasiko da. Musikaz gozatu nahi dutenentzat aukera bikaina izango da.

kuxkuxeroa



Arantzazu Ezkibel

Debagoienak herri berri bat omen dauka

Debagoiengan herri berria daukagu: **Ezko**. Hori da, behintzat, zapa-tuan Eskoriatzako Intxaurtxueta kiroldegian jarri zuten pankartek ziotena. *Ezko a la final* idatzi zuenak ez zeukan Eskoriatza finalean ikusteko gogo larregi. Hori, edo txistea nik ez dut harrapatu.

Eurovisionen bezala, orain, herri berriak elkarri bozkatzen hasiko dira, eta betikoak puntu gabe geratuko dira. Gainera, Oñatik, Espainiak bezala, ez du bizi-lagunik –ez beste batzuk adina, behintzat–, beraz, puntu

"Arrasateko mendi bizikletako proban, sailkapen gabe geratu ziren, haizearen ondorioz"

gutxiago izango ditu. Hori injustizia galanta! Bozkatze sistema aldatu egin beharko da, behingoa, inoiz irabazten ez dutenek –zergatik izango ote da?– noizbait irabaz dezaten.

Reality show-a egiteko bidean gara Oñatiko kaleetan. Udalak 11 kamera jarri ditu plazan eta inguruetan. Nor iritsiko da finalera? Finalera iritsi, maillota jantzi, baina ordainsari gabe geratu zirenak atzo Arrasaten lehiatu ziren mendi bizikleta lasterkariak izan ziren. Haizea dela eta, epaileen ordenagailua hondatu egin zen, eta sailkapenak egin gabe geratu ziren. Nahikoa lan izan zuten haizeak botatuko guztia jasotzen; zorionekoak gu, haizeak eraman ez gintuenean! Horretarako, gogor jo beharko du...

PARTE HARTU

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

Tarte hau zure txokoa da, irakurle.

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera: astelehena@goiena.com

asteburuko albuma



Aitzorrotz elkartearen eguna. Jende asko elkartu zen Eskoriatzan zapa-tuan Aitzorrotz elkartearen egunaren aitzakian. Goizean, kalejira eta kantua izan ziren protagonista, txistulari, gaitero eta Benta Zaharreko Mutiko Alaialdearen eskutik. Bazkaritan, 90 lagunetik gora izan ziren plazan eta, arratsaldean, magia eta kapoeira ikuskizunak jendearen arreta piztu zuten. Gauean, Fermin Valentzia nafarrak, Bergarako Azkaiter Peloxek eta Barua Banda eskoriatzarrek jo zuten.



Ozkarbiko bazkideen eguna. Elgetako Ozkarbi elkarteak 260 bazkideetik gora ditu, eta horietako 45 bazkaritan elkartu ziren domekan, urteroko ohiturari jarraituz. Giro onean bapo bazkaldu ondoren, trikiti doinuak izan zituzten, bazkalostea alaitzeko. Eibarko Arantzabal soinujoleak bat baino gehiago dantzan ipini zuten Ozkarbin.



Extremadurako kultura astearen amaiera. Asteburuko ekitaldiekin amaitu dituzte Arrasateko Corazon de Encina extremadurar elkarteak kultur asteko ekintzak. Hainbat lehiaketa jokatu dituzte astean barrena, eta honakoak izan dira irabazleak: marrazketan, Hodei Sierra; txintxonean, M^a Isabel Martin; musean, Paco eta Mondre; billarrean, Francisco Davila; dominoan, Francisco Davila eta Paco Fernandez; kuartrolan, Melchor eta Juan Murillo; tutean, Antonio Barquero eta Mampi; eta tortilla lehiaketan, Francisco Davila. Musika emanaldirik ere ez zen falta izan elkartean, eta domekan, besteak beste tango erako *play-back* emanaldia ikusteko aukera izan zuten bazkideek.



Kasablanka, jaietan. Oñatiko Kasablanka auzoan, jaiak izan dira aste bukaeran, eta auzotar zein gainontzeko herritarrek gustu guztietarako aukeraz gozatu ahal izan zuten, giro politean. Txikiendako, jolasak eta txorimaloak izan ziren; musika ere, arratsalde eta gau partean, rocka eta erromeria girokoa; eta bapo jan eta edateko parada ere ez dute galdu, sagardo eta pintxo-dastatzea zein auzotarren afaria izan baitziren.



Kinto bazkaria. 1963an jaiotako 25 bergarar bazkaritarako elkartu ziren zapa-tuan, azken 12 urteotan hutsik egin gabeko ohiturari jarraituz. Eguerdiko poteoaren ostean, Torrekua jatetxean egin zuten bazkaria, eta, bazkalosteko berriketaldiaren ondoren, batzuek gau partera arte luzatu zuten jaiak, eta herriko tabernetan ibili ziren dantzan.



hildakoak

- **Eugenio Igarza Loidi.** Bergaran, maiatzaren 11n. 83 urte.
- **Felipa Urrutia Azkarate.** Arrasaten, maiatzaren 11n. 83 urte.
- **Fermin Urkiola Velez de Guevara.** Arrasaten, maiatzaren 11n. 74 urte.
- **Julia Ugalde Agirregabiria.** Arrasaten, maiatzaren 11n. 65 urte.
- **Elena Garitano Lizarralde.** Bergaran, maiatzaren 12an. 91 urte.

ESKELAK

GOIENKARIAN eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
943 25 05 01

Eskelaren prezioa: 87 euro.
Prezio berezia: egubakoitzeko eta astelehenko GOIENKARIAN, bietan, argitaratuz gero, **100 euro.**

Goienkaria: astero, 45.000 irakurle.

URTEURRENA

Ignacio Zubillaga Leunda

Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 20an, 11:30ean, Antzuolako Errukizko Amaren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

zorion agurrak



BERGARA
Ane Bretaña
Maiatzaren 7an, 4 urte egin zituen. Etxeko partetik, zorionak, printzesa!



BERGARA
Uxue Agirre
Maiatzaren 8an, 14 urte bete zituen. Zorionak eta muxu handi bat!



OÑATI
Itziar Meadow
Maiatzaren 8an. Zorionak eta muxu handi bat Gaizka eta Mirenen partetik (pintxoak nahi ditugu!) Antonio Da Forever!



OÑATI
Kristina Pombar eta Nuria Velasco
Maiatzaren 8an. Zorionak eta 24 tirakada belarritik! Erregaluak gustau zatzue? Muxu handi bat, zuen kuadrillakuan partetik. Ondo pasau eguna!




ARRASATE
Iraitz Zubizarreta
Maiatzaren 8an. Zorionak, Iraitz! Ondo ondo ospatu-ko zeben, ezta? Patxo bat! Kuadrillakuk.



OÑATI
Juantxo Murua
Maiatzaren 9an. Egun dotoria pasauko zebela espero dogu! Zure kuadrillian partetik.



ARETXABALETA
Ainara Vazquez
Maiatzaren 9an, 6 urte. Zorionak eta muxu bat, gurasoen eta anaia Jonen partetik!



OÑATI
Maria Fuente
Maiatzaren 9an. Zorionak eta patxo handi handi bat, kuadrillakuan partetik!



ESKORIATZA
Garbiñe Beitia
Maiatzaren 10ean, urtebetetzia! Zorionak eta patxo handi bat, Garbi, lankidien partetik!



ARETXABALETA
Aitzol Lagunilla
Maiatzaren 10ean. Zorionak eta kiloka muxu, Oskitz, aita-txo, amatxo eta etxeko partetik!



BERGARA
Ane Barragan
Maiatzaren 10ean, 14 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko partetik!



ARETXABALETA
Zaraitzu Bergaretxe
Maiatzaren 11n, urtebetetzea. Zorionak, Zaraitzu zure 3. urtebetzean, eta muxu handi bat. Amaiur.



ARRASATE
Ibai Ormaetxea
Ezpeleta
Maiatzaren 11n, 6 urte. Zorionak, etxeko partetik, bereziki Ametsen partetik!



ARRASATE
Aitziber Soriano
Maiatzaren 12an urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako familia-koen partetik.



BERGARA
Txomin Santamaria
Maiatzaren 12an, 38 urte. Muxu handi bat Antxonen partetik!



ESKORIATZA
Miren Zubillaga
Maiatzaren 12an, 10 urte. Zorionak, etxeko guztien partetik!



OÑATI
Mikel Freire
Bastardo
Maiatzaren 12an, 6 urte. Zorionak, etxeko guztien partetik!



ARRASATE
Mikel Mondragon
Maiatzaren 13an, urtebetetzia! Zorionak, Mon, eta ondo pasau! Koadrilakuk.



ARETXABALETA
Enaitz Isasisasmendi
Maiatzaren 13an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi handi bat, etxeko guztien partetik!




ARRASATE
Zigor Zeziaga
Maiatzaren 15ian, urtebetetzia! Zorionak, Txetxi, eta ondo pasau eguna! Koadrilakuen partetik.




BERGARA
Lierni Azkarate
Maiatzaren 15ean, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, gurasoen eta ahizpa Naiararen partetik!



OÑATI
Miren Leibar
Agirrezal
Maiatzaren 15ean, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko partetik!



ANTZUOLA
Maren Atxa Irizar
Maiatzaren 15ean, urtebete. Zorionak, potxola, eta muxu bat denon partetik!



ANTZUOLA
Aintzane Mugika
Maiatzaren 16an, urtebetetzea! Urte askotarako, Txominen eta etxeko partetik.



ARRASATE
Ander Gomez
Maiatzaren 17an, 7 urte. Zorionak! Familiaren eta plaza-ko lagun guztien partetik.



ARETXABALETA
Ibai eta Maialen Lazkano
Maiatzaren 19an, 3 urte. Zorionak, familiako partetik!



OÑATI
Iزارo Altuna
Maiatzaren 19an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, familia osoaren partetik!



ESKORIATZA
Alexander Sanchez
Cabeza
Maiatzaren 20an, 13 urte. Zorionak eta ondo-ondo pasatu! Gurasoak eta etxeko guztiak.

jaiotakoak



Añer Jara Moya
Eskoriatza > Apirilaren 29an. Gurasoak: Jesus (Eskoriatza) eta Natalia (Eskoriatza). Argazkian, Añer, kuman.



Ethan Moral Kiran
Arrasate > 3,600 kilo. Maiatzaren 6an. Gurasoak: Emma (Ingalaterra) eta Asier (Arrasate). Argazkian, Ethan txikia, amaren besoetan.



Ander Onandia Zubizarreta
Arrasate > 3,000 kilo. Maiatzaren 6an. Gurasoak: Marta (Arrasate) eta Aitor (Arrasate). Argazkian, Ander jaioberrria, kumatxoan lasai-lasai.



Eneko Otano Uriarte
Bergara > 2,850 kilo. Maiatzaren 7an. Gurasoak: Karmele (Bergara) eta Joseba (Bergara). Argazkian, Eneko jaioberrria, bere kumatxoan.



Julen Otero Larrañaga
Bergara > 3,600 kilo. Maiatzaren 8an. Gurasoak: Ainhoa (Bergara) eta Zigor (Bergara). Argazkian, Julen umea, aitaren besoetan.



Julen Bermejo Lage
Arrasate > 2,630 kilo. Maiatzaren 10ean. Gurasoak: Ana (Arrasate) eta Jou (Arrasate). Argazkian, Julen jaioberrria, kumatxoan gustura.



Leire Biskert Fernandez
Bergara > 3,270 kilo. Maiatzaren 10ean. Gurasoak: Marta (Eibar) eta Kepa (Bergara). Argazkian, Leire jaioberrria, amaren besoetan.



BABESLEA



Añer Molina Hernandez
Bergara > 3,190 kilo. Maiatzaren 10ean. Gurasoak: Bego (Ermua) eta Aitor (Bergara). Argazkian, Añer jaioberrria, amarekin eta aitarekin.

IKUSI MAKUSI

Umeen paradisia

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

Pello Ospital > Kantaria

"Bergarako Iralatik sartu ginen Hegoaldera"

OIHANA ELORTZA > BERGARA
Pantxoa Carrereren kantu-laguna da Peio Ospital. Ia 40 urte egin dituzte elkarrekin kantuan, eta batera jarraitzen dute, euren erritmora, inoren presiorik gabe.

Nola ezagutu zenuten elkar Pantxoa eta biok?

Baionako apaiztegia ikasle ginela ezagutu genuen elkar, 10 urte inguru genituela.

Kantuan ere, garai hartan hasi zineten?

Baionan, eskola orduetatik kanpo, bi ordu egiten genituen egunero, kantatzen ikasteko; kantu gregorianoak abesten genituen. Hala ere, lehen kantu-eskola etxea izan nuen nik. Orduan, ez genuen telebistarik, eta Iparraldeko kantuak zituen liburuxka bateko abestiak kantatzen pasatzen genituen orduak.

Zenbat aldiz zigortu zintuzten eskolan, euskaraz egiteagatik?

Debekatuta genuen. Euskaraz hitz egiten zuen lehen ikasleari, makila txiki bat ematen zion irakasleak, eta ikasleak euskaraz

egiten zuen hurrengo gelakidea-ri eman behar zion. Azken minutuan, makila eskuan zuenak beste ordubete egin behar zuen eskolan, esaldi hau idazten: ni frantsesa naiz eta ez dut euskaraz gehiago egingo.

Nola ezagutu zenuten Telesforo Monzon?

Berak entzun gintuen behin kantuan eta, eskolako oporrak izaten genituenean, urtero etorzen zen nire etxera; gero, Pantxoa jasotzen genuen bere etxean, eta hirurok egun pasa joaten

ginen. Baigorri ingurua asko gustatzen zitzaion. Egun baten, esan zigun berak bazituela idatzita guk abesteko moduko kantu batzuk, horien artean *Itziarren semea*.

Nola egin zenuten Hegoaldera-ko pausoa?


Bergarako Irala zineman egin genuen lehen emanaldia, 71n. Iparraldeko kontzertuetan, 200 lagun inguru batzen ziren, baina, Bergaran, 1.000 inguru zeuden. Gogoratzen naiz ikaratuta nengoela.

Kantaria ez ezik, banketxeko langilea ere izan zara urteetan.

Bai, gu ez gara inoiz kantutik bizi izan. Pantxoak zein nik bakotzak bere lanbidea izan du; nik banketxe baten egin dut lan 30 urtez. Baionako Mattin megadenda zabaltzeaz zeudenean utzi nuen lan hura euskal kulturagintzagatik. Lapurdi Irratian ere ibili naiz. Gaur egun, erretiratuta nago.

Iloben gurasoek zorzea dute ilobek sasoiko aitona dutelako.

Baina bazeneki guk ere zenbat disfrutatzen dugun eurekin...




OSPITAL Peio Ospital egubakoitzean egon zen GOITBn.

O.E.

www.goiena.net

Lehen Jaunartzeetako gastua, ospakizun handiak... ondo iruditzen zaizkizu?



biharamuna

Oier Bolibar

Azalpenak

Azalpenak eskatu eta ikerketa ofizial bat ireki dio AEBko gobernuak Michael Moore idazle eta zinegileari, Sicko, amaitu berri duen dokumental berria, Kuban grabatu eta enbarguari muzin egiteagatik. *Bowling for Columbine* eta *Fahrenheit 9/11*-n kontatutako errealitatearen ostean, orain AEBko osasun sistemaren gabezi eta mugak azalduko dizkigu, beste behin ere Bush-en gobernu ikuspuntuan jarritz.

Azalpenak eskatzen dizkiete BAME-ek (Barne Medikua Egoiliarrek) EAE-ko Osasun Sailari, ustez Estatuko osasun sistema



aurreratuena den honetan dituzten lan baldintzengatik. Ulergaitza, zerbitzu onena lortu nahi izatea, soldata xume eta lanaldi luzeekin, eta tartean gure osasuna jokoan.

Azalpenak eskatzen ditu baita gizarteak, bizi garen uesteko sistema demokratiko baten gabeziak agerian gelditzen direnean, ulergaitza baita nola hurrengo hauteskundeetan hiritar guztiak bozkatzeko eta bozkatuak izateko duten eskubidea beste behingoz goitik behera urratuko den.

Franz Kafkak zioen ezagutza guztia, eta galdera zein azalpen oro, zakurrean zeudela. Agian, arrazoi zuen.

eguraldia



MINIMOA

+12

MAXIMOA

+18

Zerua hodeitsu egongo da, eta giroa nahasia izango da. Zaparradak botako ditu, eta ipar-mendebaldetik joko du haizeak, zakar.

www.euskalmet.euskadi.net

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, GIPE hutsunea **KODEA**
ABESTIAK: Bidali, GIPP hutsunea **KODEA**
LOGOAK: Bidali, GIPL hutsunea **KODEA**
JOKOAK: Bidali, GIPJ hutsunea **KODEA**

5767 zenbakira

SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZa

smsoinu

Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (2 sms)
Abestiaren izena (Abeslaria) | **KODEA**

<p>Pop-Rock</p> <p>Aitormena (Hertzainak) AITORMENA Aizkolari (Kortatu) AIZKO Amore amore (Kandideko benta) AMORE Askatasun egarriz (Lin Ton Taun) ASKATA Begi okertuta (Lin Ton Taun) BEGIAK Bi Minutero (Hertzainak) BIMINU Dub manifest (Fermín Muguruza) DUB Egunero (Hertzainak) EGUNERO EH Sukarra (EH Sukarra) SUKAR Ez dion merda, nosotras amen (La Polla) ELLOS Enamorado de la muerte (RIP) ENAMO Entzuidazu (Aterking's) ENTZU Etorkizuna (Etsaiak) ETORRI Ezer ez da betiko (Ken7) EZER Gora Herria (Negu Gorriak) GORA</p>	<p>Hator Bel-Air (Bide Ertzean) BELAIR Haizea (Ken7) HAIZEA Hegal egiten (Ittoiz) HEGAL Ikusi (Delirium Tremens) IKUSI Ilargia (Ken7) KEN Inperuen ate joka (Gatibu) INPER Jokin Urami Hitzak (Bide Ertzean) JOKIN Kaixo (Urte) KAIKO Lau Teilatuta (Ittoiz) ITOTZLAU Laztana (Lazten) LAZTA Lotuta egon arren (Kokein) LOTUTA Loretxoa (EXKXU) LORE Marea Gora (Ittoiz) MAREA Musturrek sartunde (Gatibu) MUSTURREK Nicaragua (Kortatu) NICA</p>	<p>No time for love (Hertzainak) NOTIME Salve (La Polla) SALVE Sari Sari (Kortatu) SARRI Sorginen leizean (Exkixu) SORGIN Txabro (Zarama) TXATXO1 Txus (La Polla) TXUS</p> <p>Folk</p> <p>Arratsalde honetan (Soroan Bala) SOROTAN Bai euskarari (Pantxoa) BAI Bakezaleak (Ane Duhalde) BAKE Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) BIZKAIA Eperak (Ane Duhalde) EPERRAK Euskal Herria Euskaraz (Bakoni) EUSKAL Euskaldun berriaren balada (Bakoni) EUSKALDUN</p>
--	--	---

LOGOAK (2 sms)
KODEA

<p>ZINEMA</p> <p>AIZKORAK</p> <p>GLOBUAK</p> <p>EGUZKILOREZ</p> <p>NIREKIN</p> <p>SORGINGA</p>	<p>OHARRAK</p> <p>1. BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonora bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri</p> <p>2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPS sistema aktibatuta izatea. GPS sistema aktibatutako, jarraitze zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitseria bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu gutxietan deia eta GPS sisteman alta ematea doan dira.</p> <p>* Euskalhe: deitu 900 94 02 00 telefonora. / * Vodafone: deitu 123-ra. / * Movistar: deitu 609-ra.</p> <p>3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.</p> <p>4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurria egin ditzaizkete abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.</p>
--	--

WEBGUNEAN → www.smsoinu.com